



GIZARTE ZERBITZUAK MEMORIA 2021



Begarako
Udala



BERGARA
izan, bizi, ekin



AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	6
DEPARTAMENDUAREN BALIABIDE PERTSONALAK.....	7
KOKAPENA ETA ORDUTEGIA.....	7
BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU.....	9
2021.URTEKO SARRERA - GASTUEN BALANTZEA.....	29
GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK.....	39
GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK.....	49

DEPARTAMENDUA ATALETZ ATAL

• 3. ADINA	59
- RAI Balorazioa	63
- Etxekolaguntza zerbitzua	63
- Tele-asistentzia zerbitzua	75
- Eguneko zentroa	76
- Egoitza	78
• Behin betirako egoitza	78
• Aldi baterako egoitza	80
- 3. Adineko elkarteak	81
- SENDIAN programa	83
- Gizarte premiak antzeman eta sute arriskuak ekiditeko programa.....	84
- Erabilera anitzeko etxebizitza	84

• MENDEKOTASUN EGOERAK	87
- MBB mendekotasun balorazioa	91
- Desgaitasuna edo minusbaliatasuna	92
- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	93
- Familia inguruneke zaintzetarako zein profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa	94
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa	95
- Laguntza teknikoak	96
- Laguntza teknikoen lagapena	98
- Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko Udal bonifikazioak	101
- Eguneke zentroak eta egoitzak pertsona ezinduentzako	102
- Elbarrituentzako aparkaleku txartela	103
- Elbarrituentzako aparkaleku erreserba	104
- Mendekotasun egoeren jarraipenak	104
- Interpretazio zerbitzua	106
• PRESTAZIO EKONOMIKOAK	109
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzak	113
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) eta etxebizitza gastuei aurre egiteko laguntza osagarria (EGLO)	123
- Kotizatu Gabekoen pentsioak	126
- Gizarte Ongizate Fondoko Pentsioak	127
- LISMI – Elbarrituen gizarteratzeko legea	127
- Preso eta deportatuentzako dirulaguntzak	128
- Gazteen alokairu sozialerako dirulaguntzak	128
- Gizarteratzeko balorazioak eta esku-hartzeak	131
- Zerbitzu psikosozial eta psikohehitzalea	136
• ATZERRITARRAK	139
- Itzulpen eta interprete zerbitzua	142





• BESTE BATZUK	143
- Dutxa zerbitzua	147
- Ibiltariak	147
- Etxebizitza kaleratzeak	147
- Beste batzuk	150
• PREBENTZIOA	151
- Prebentzioa familian	155
• Formazio arloa	155
• Orientazioa	155
- Prebentzioa eskolan	156
- Jai eta aisialdi eremuko programa	158
- Edari alkoholdunak eta tabakoa adin txikikoei saltzearen gaineko kontrola	159
- Drogen mendekotasunen inguruko aholkularitza	159
- Mendekotasun ezberdinen tratamendurako dirulaguntzak	160
• BERDINTASUNA	161
- Indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako aurkako laguntzak	166
• 1.go harrera edota akonpainamendua	166
• Laguntza psikologikoa	171
• Aholkularitza juridikoa	173
• Ostatua ematea	173
- Genero indarkeriako kasuentzako dirulaguntzak	173
- Gipuzkoako genero indarkeriaren probintziako batzordea	174
- Berdintasun plana	175
• ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA	185
- Laneratze formazio ikastaroak	189
- Ekintzailetasuna Enpresa-Negozioak	189
- Orientazio zerbitzua	192
- Enplegu plana	194
- Lan eta formazio eskaintzen informazioa	195
- Garapen ekonomikorako ekimenak	195
• Merkataritza indartzeko plana: MSPB-PERCO	195

• Ostalaritzarekin lankidetzak	199
• Oxirondo azokaren dinamizazioa	200
• Enpeseekin lankidetzak	202
- Enpresa berrientzako lokalak alokatzeko laguntzak	202
- ERAGIN laguntzak	202
- ENPRESARE foroa	203
- FASTENING. Computer center-FCC(FEX)	204
- ZTB-Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak	205
- EKINOLA – Ekintzailetasun jardunaldiak	207
- EHUNDU-rekin lankidetzak. Eraldaketa sozialaren inguruan etorkizuna eraikiz.....	208
 • FAMILIAK	211
- Arrisku edo babesgabetasun egoeran dauden adingabekoak	215
• Balorazioak	217
• Esku-hartzeak	219
• Kale hezitzaileen zerbitzua	220
• Esku-hartze juridikoa	222
• Jarraipena	223
• Babesgabetasun arrisku egoera larrian dauden adingabekoak. Foru Aldundiaren esku-hartzea	223
• Adingabekoak Babesgabezia egoeran. Foru Aldundiaren tutelapean.	224
- Adingabekoak kargura dituzten familientzako dirulaguntzak	224
- Zaintzagatiko dituzten familientzako dirulaguntzak	225
- Banaketa egoeran dauden gurasoentzako erantzunkidetasun programa	225
- Gainbegiratze saioak	226
- Eskola arrakasta proiektua	226
- Eskola material banaketa proiektua	227
- Jostailu hezitzaile banaketa proiektua	227
 • GIZARTE LANKIDETZA	229
- Gizarte zerbitzuen arloko elkarteei dirulaguntzak	233
- Gobernu kanpoko elkarteei laguntzak	235
- Elikagaien bankuko janari banaketa	237





AURKEZPENA

Gizarte Zerbitzuen departamenduaren barnean, prestakuntza ezberdina duten profesionalen osatutako talde teknikoaren bidez, Osasuna, Enplegua eta Gizarte Arazoekin zerikusi duten gaiak eta enplegua-sustapen sozioekonomikoa lantzen dira.

Bere helbururik nagusia Bergarako herritarren bizi-kalitatea hobetzea da, eta horretarako dauden baliabideak gestionatu eta sustatzen ditu, arrisku-egoeretara eta marjinaziora bultzatzen duten arazoei aurrea hartzen saiatzen da eta herritarren eguneroko bizitzan parte hartzea sustatzen du.

Hori lortzeko zerbitzu honen bidez zenbait jarduera garatzen dira honako esparru hauetan: 3. adina, mendekotasun egoerak, prestazio ekonomikoak, atzerriarrak, prebentzioa, berdintasuna, enplegua-sustapen sozioekonomikoa, familiak eta gizarte lankidetzak.

Esku artean duzun txosten honen bidez, lehendabizi herria hobeki ezagutzeko Bergarari buruzko datu interesgarri batzuk azaltzen dira.

Jarraian Bergarako Gizarte Zerbitzuetako departamenduari dagozkion 2021eko datu ekonomikoak aurkituko dituzu. Sarrera gastuen balantzea, gastuaren xehetasunak, e.a.

Ondoren Departamenduaren jardunaren deskribapen orokor bat azaltzen da: departamenduan burututako ekintzak eta departamendura hurbildutako herritarren eta hauek hurbiltzeko erabilitako bideen xehetasunak. Honekin batera, Departamenduan kudeatutako espedienteek buruzko informazioa orokorra ezagutzeko aukera izango duzu.

Azkenik, eta Gizarte Zerbitzuetan ezagutza sakonagoa edukitzeko, atalez-atal kudeatzen diren zerbitzu eta programa bakoitzaren deskribapena, urtean burututako jarduna eta beste urte batzuekiko bilakaera azaltzen da.

DEPARTAMENDUAREN BALIABIDE PERTSONALAK

Udaletxeko baliabideak

Zuzeneko baliabide pertsonak

• Departamendu burua	1
• Gizarte langilea	2,5
• Prebentzio teknikaria	1
• Gizarte teknikaria	1
• Garapen teknikaria	1
• Administraria	1,5

Zeharkako zerbitzuak

• Lan orientazioa eta gizarteratze teknikaria	1/3
• Berdintasun aholkularitza zerbitzua	1/2

KOKAPENA ETA ORDUTEGIA

-  San Martin Agirre plaza, z/g
-  Bergaratik deituz gero; 010 Luzapena 1210
Bergara kanpotik deituz gero: 943-77 91 00 luzapena 1210
-  ongizatea@bergara.eus
-  Astelehenetik ostiralera, 8:30 – 13:30.
Gizarte zerbitzuekin hitzordua hartzeko Bergararren Arreta Zerbitzura (BAZ) deitu behar da.





BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU



BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU




BERGARAKO BIZTANLEGOARI BURUZKO DATUAK

2021/12/31ko datuak


Biztanleak: **14.584**

Biztanleria



Generoa

Bergarako biztanleria sexuaren arabera banatua



Iturria: Estatistika Istituto Nazionale


BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU



BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU



Adina Bergarako Biztanlegoa



Iturria: Udal Errolda


	0-17	18-44	45-64	65-74	75-84	85-94	95-...
Emakumeak	7,74	13,76	15,11	6,07	4,44	2,97	0,27
Gizonezkoak	8,27	15,03	15,65	5,49	3,63	1,48	0,08
TOTALA	16,01	28,79	30,76	11,56	8,07	4,44	0,35

Iturria: Udal Errolda

3. adinari dagokionez,

Bergarako biztanleria adinaren arabera banatua

65 urtetik gorako pertsonen dagokionez, **3.508** pertsona, **%24,07a**, **65** urtetik gorakoak (lazko urtearen berdin mantentzen da)



Iturria: Estatistika Instituto Nazionala


BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU




BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU



3 adinaren bilakaera azken urtetan



3. adinaren kopuruak ingurunearekin alderatuta



Iturria: INE. Lantzea: Ikuspegi

BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU




BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU




Jatorria

1.416 pertsona, herritarren % 9,70, atzerritarra da.



Iturria: INE. Lantzea: Ikuspegi

Inmigrazioaren bilakaera azken urteetan



Iturria: INE. Lantzea: Ikuspegi

**BERGARAKO
BIZTANLEGO
ETA HERRIARI
BURUZKO
HAINBAT DATU**




BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU




Inmigrazioa ingurunearekin alderatuz

Inmigrazio datu konparatiboak



Iturria: INE. Lantzea: Ikuspegi

Inmigrazioa herrialdeko banatuta Bergara mailan



Iturria: Bergarako Udala


BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU



BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU




Inmigrazioa herrialdeko eta sexuaren arabera banatuta Bergara mailan



Iturria: Bergarako Udala

Inmigrazioa sexuaren arabera banatuta



Iturria: Bergarako Udala

BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU



BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU




Langabezia

Danera, **563** pertsona langabezian daude.

Langabezia tasa, **%7,80** (*)ekoa da.

(*) % 0,11 jaitsi da 2020. urtearekin alderatuz




■ Emakumea
■ Gizonezkoa

Iturria: Lanbide

Langabezia tasa (%) ingurunearekin alderatuz

Langabezia tasa




Iturria: Erkidegoko datuak Lanbide; Estatukoa INE

BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU




BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU



Bergarako langabeziaren bilakaera azken urteetan


Langabezia Bergaran



Iturria: Lanbide

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI)

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta – RGI tasa ingurunearekin alderatuz



Iturria: Lanbide

BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU




BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU



Mendekotasuna baloratuta duten pertsonak:

Mendekotasuna baloratuta duten pertsonak ingurunearekin alderatuz



Laburbilduz, Bergarako biztanlegoak azken urtetan beheruntz egin du eta oraingoan ere, 26 biztanle gutxiago ditu aurreko urtearekin alderatuz.

Biztanleriaren ezaugarriei dagokionez, genero arteko diferentzia handirik ez dago orokorrean.

Adinari dagokionez, 46-65 urte tartekoa da multzorik handiena, oso gertu 18-45 urtekoak dituelarik. Ez da aldaketa nabarmenik eman aurreko urtearekiko.

65 urtetik gorako pertsonen dagokionez, %24,07 suposatzen du, Gipuzkoa eta EAE-ko bataz bestekorik gora kokatzen delarik. Sexuari dagokionez, 65 urtetik gorakoetan emakumeak gehiago dira.

Atzeritarrei dagokionez, estatutik kanpoko jatorria dutenak, 2020an baino 73 atzeritar gehiago daude. Gipuzkoa eta Euskal Autonomia Elkidegoarekin (E.A.E) alderatuta pertsona gutxiago dira. Hauen jatorriari dagokionez, gehiengoa Hego Amerika eta Ertameriketako herritarrak dira. Sexu banaketari dagokionez, gizonezkoak gehiago dira, baina ez dago alde nabarmenik.

Langabeziari dagokionez, 2020 urtearekiko igo egin da %0,11n, gaur egun langabezia %7,80an kokatzen delarik. Ingurunearekin konparatuz, langabezia maila baxuagotan gaude.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DBE/RGI) dagokionez, Gipuzkoako zein EAE- mailaren azpitik aurkitzen gara.

BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU



BERGARAKO BIZTANLEGO ETA HERRIARI BURUZKO HAINBAT DATU



Azkenik, mendekotasun mailari dagokionez, Bergaran autonomia faltagatik beste pertsona baten laguntze behar duten pertsonen kopurua, Gipuzkoako batanaz bestekotik gora dago, baina Gipuzkoako mediatik behera.

Hau guztia kontutan edukiz, ingurunearekin alderatuz, Bergaran 3.adina eta mendekotasun maila handiagoak edukitzeagatik nabarmentzen da.

2021. URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA



2020.URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA



2021. URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA

OHARRA: ATAL HONETAN ZEHAZTEN DIREN DIREN DATU EKONOMIKOAK UDAL KONTABILITATEAREN ARABERAKOAK DIRA.


Gastua

Bergarako Udalaren gastu orokorra:

27.848.942,48 €

Gizarte Zerbitzuetako gastu;

2.470.307,22 €



Iturria: Bergarako Udala

2021. urtean gizarte zerbitzuetako gastua (gizarte zerbitzuak + garapena) % 8koa izan zen.

Gastu banaketa atal eta anbitoka

ATALAK	Mend	3. adina	Prebent	G.Lankid	Enplegua eta tokiko garapena	Diru-lagu	Familiak	Generoa	Migrazi	Gizarteratzea	Besteak	TOTALA
Pertsonala	48.549,10	37.698,19	40.949,94	14.592,32	61.125,93	85.618,78	40.592,86	27.784,44	2.561,68	12.211,36	71.153,52	442.838,12
Erosketa-Zerbitzu arruntak	11.147,75	960.238,75	121.431,64	0,00	0,00	0,00	38.439,89	79.283,18	0,00	0,00	13.392,14	1.223.933,35
Interesak												0,00
Trans. arruntak	0,00	0,00	104,00	88.441,63	350.434,27	213.243,11	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	781.571,88
Inbertsioak	7.995,37	3.207,56	0,00	0,00	138.543,82	0,00		47.312,36	0,00	0,00	889,69	150.636,44
Trans. Kapital					676,30							676,30
TOTALA	67.692,22	1.001.144,50	162.485,58	103.033,95	550.780,32	298.861,89	79.032,75	107.067,62	2.561,68	12.211,36	85.435,35	2.470.307,22
%	2,74	40,53	6,58	4,17	22,30	12,10	3,20	4,33	0,10	0,49	3,46	100

Mend: Mendekotasunak Prebent: Prebentzioa G. Lankid: Gizarte Lankidetzak Diru-lagu: Diru-laguntzak Migrazi: Migrazioa

2014 – 2021 urtetako gastu banaketa arlo edo anbitoka banatuta

URTEA	ATALAK	Mend	3. adina	Prebent	G.Lankid	Enplegua eta tokiko garapena	Diru-lagu	Familiak	Generoa	Migrazi	Gizarte-ratzea	Beste batzuk	TOTALA
2014	TOTALA	9.429,90	1.073.333,5	55.423,31	68.281,35	196.805,1	172.922,11	42.832,14	23.752,8	5.780,78		467.788,78	2.116.350,94
2015	TOTALA	30.765,73	1.142.788,2	120.752,06	75.759,49	211.021,14	252.668,34	72.747,27	59.213,45	2.377,01		37.553,14	2.005.645,85
2016	TOTALA	33.472,50	1.150.719,1	120.550,92	115.182,3	352.880,98	263.019,00	100.168,6	100.350,7	3.707,56		61.783,17	2.301.835,00
2017	TOTALA	36.224,50	1.033.878,9	109.892,13	93.079,36	352.963,78	281.667,80	121.019,3	59.537,48	5.764,28		42.592,28	2.136.619,88
2018	TOTALA	46.730,48	686.481,18	178.361,26	127.344,35	296.335,99	246.074,97	87.346,60	73.591,80	2.372,12		80.692,11	1.825.330,86
2019	TOTALA	36.708,75	927.574,31	154.630,55	58.419,82	244.933,35	221.280,63	132.920,62	79.962,76	2.439,91	9.736,07	77.976,21	1.946.582,96
2020	TOTALA	54.286,56	992.169,40	135.831,96	89.102,56	564.889,48	342.941,21	262.269,39	138.470,36	2.537,23	47.545,8	73.845,32	2.703.889,30
2021	TOTALA	67.692,22	1.001.144,50	162.485,58	103.033,95	550.780,32	298.861,89	79.032,75	107.067,62	2.561,68	12.211,36	85.435,35	2.470.307,22

2020.URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA




Aurreko urtearekin alderatzen badugu, azpimarratzeko datu aipagarrienak dira:

1.- Bergarako Udako gizarte zerbitzuen gastua (gizarte zerbitzuak + garapena) Udal aurrekontu orokorraren %8a da. (Gizarte zerbitzuetako gastua, garapen sozioekonomikoa kenduta, aurrekontu guztiaren %6koa da).

2.- Udalak gizarte zerbitzuetan gastatu duena, aurreko urtearekin alderatuta % 8,63an jaitsi da.


Arloz arlo datuak aztertzen badira, gastu jaitsiera handienak diru-laguntza, familia eta gizarteratze arloan eman dira. Familia eta gizarteratze arloan, eragina eduki du 2020 urtean zerbitzu psikosozial-psikohezitzaileen kontratua kaleratu izanak. Kontratu honen bidez, 2021eko ekainetik 2022ko ekainera arteko zerbitzua finantziatzeko dirua gorde zen. Bestalde, berdintasun arloan, 2020 urtean babes etxea berrizteko dirua gorde zen eta 2021 urtean erabili da egokitzapenak egiteko. Diru-laguntzei dagokionez, 2020 urtean, COVID19ak sortutako itxialdiak sortutako krisiari erantzuteko, diru-laguntza bereziak sortu ziren eta honek gastua normaltasunetik gora igotzea ekarri zuen. 2021 urtean, itxialdia gaindituta, diru-laguntzen arloa normaltasun egoera batea itzuli da. Antzerako zerbait, baina maila apalagoan, garapen sozio-ekonomiko arloan eman da. Gastua murriztu egin da aurreko urtearekiko, baina COVID19ak enpresa, merkataritza eta ostalaritzan sortutako kalteei erantzuteko gastua altu mantendu da. Gastu igoerari dagokionez, aipagarriena prebentzio arlokoa izan da. 2021 urtean onartu zen prebentzio plana berriztea eta horrek gastuaren hazkunde bat ekarri du. Prebentzio plana 2022 urtean egingo da. Bestalde, eta herriaren ezaugarri demografikoan ondorioz, 3.adina eta mendekotasun mailak batz bestekotik gora ditugun, bi arlo hauetara bideratutako gastua igo egin da azken urtetako joerari eutsiz.

3.- Pertsonal arloari dagokionez, aurreko urtearekiko ez dago diferentzia nabarmenik. Gastua igo egin da, baina igoera soldaten urteko lan hitzarmenari lotutako igoerek eragindakoa izan da. Zerbitzuan ez da pertsonal berririk gehitu.



Iturria: Bergarako Udala

2020.URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA




2020.URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA



Bergarako Udalak 2009 – 2021. urteetan gizarte zerbitzuen arloan egindako gastuaren bilakaera


GIZARTE ZERBITZUETAKO GASTUAREN BILAKAERA



Sarrerak

Beste erakunde batzuetatik etorritako diru laguntzak:

Eusko Jaurlaritza	Aldundia	Herritarrak	Estatua	DANERA
209.652,52	319.804,62	205.620,12	15.651,47	750.728,73



Iturria: Bergarako Udala


2020.URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA



2020.URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA




Udalak Gizarte Zerbitzuetan gastatutakoaren % 30,39 beste erakunde batzuetatik eta herritarren ekarpenetatik etorritako sarrerak izan dira.




Iturria: Bergarako Udala

Diru sarreren bilakaera honakoa izan da azken urteetan



Diru sarreren bilakaera erakundeen arabera



Iturria: Bergarako Udala

2020.URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA



Gastuak eta sarrerak anbitoan arabera:

ATALAK	Mend	3. adina	Prebent	G.Lankid	Enplegua eta tokiko garapena	Diru-lagu	Familiak	Generoa	Migrazi	Gizartera-tzea	Beste batzuk	TOTALA
GASTUA	67.692,22	1.001.144,50	162.485,58	103.033,95	550.780,32	298.861,89	79.032,75	107.067,62	2.561,68	12.211,36	85.435,35	2.470.307,22
SARRERAK	15.687,84	384.155,28	26.986,00	0,00	47.800,98	155.818,00	0,00	16.174,00	0,00	0,00	96.920,17	750.728,08
Sarreraren %a gastuarekiko	% 23,17	% 38,37	% 15,75	% 0	% 0,05	% 56,91	% 0	% 25,82	% 0	% 0	% 113,44	% 30,39

Mend: Mendekotasunak Prebent: Prebentzioa G. Lankid: Gizarte Lankidetzak Diru-lagu: Diru-laguntzak Migrazi: Migrazioa

Azken lau urteetan igo egin dira Bergarako Udalez kanpo egondako ekarpenak gizarte zerbitzuetako gastuei aurre egiteko.

Hala, atalez atal hartzen badugu, diferentziak nabarmentzen dira. Jaurilaritzak emandako laguntzak igo egin dira, batez ere Gizarte Larrialdietarako Diru-laguntzetan banatzeko. 2020an COVID19a dela eta, E.A.E-ko herri guztiei ekarpena jaso egin zuten sortutako herritarren oinarritzko premiei erantzuteko eta 2021.urtean ere horrela mantendu da.

Aldundiak emandako laguntzak ere igo egin dira, batez ere etxeko laguntza zerbitzuaren finantziatorako (orduen igoerarekin erlazionatuta dago). Enplegu eta garapen ekimenak burutzeko ere finantziarioa egon da, baina jaitsi egin da aurreko urtearekiko.

Estatuaren ekarpena, indarkeria matxistari aurre egiteko estatu itunaren bitartez, ia hirukoiztu egin da aurreko urtearekiko.

Azkenik, herritarren ekarpenei dagokionez, etxeko laguntza zerbitzua eta erabilera anitzeko etxebizitzagatik egiten duten ekarpenak igo egin dira.




GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK

GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK



Artatutako jende kopuruari dagokionez, 2021. urtean **6.162** pertsona artatu dira Bergarako Gizarte Zerbitzuetan (2020 urtean 7.893).


Artatutako jendea



Iturria: Bergarako Udala

2021 urtean gizarte langile batekin hitzordua edukitzeko batatz besteko denbora **24** egunetakoa izan da.

Artatutako jendearen bilakaera



Iturria: Bergarako Udala


GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK



GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK



Ondorengo taulan azaltzen da azken urteetan herritarrek gizarte zerbitzuekin harremantzeko moduen bilakaera



Iturria: Bergarako Udala

2020 urterarekin aldaratuz, departamenduan **1.731 pertsona gutxiago artatu dira.**

Teknikariekin izandako hitzordu kopurua 2.063 (programatutako edo programatu gabeko elkarrizketak) izan da. Hauetatik %73,14a zuzenean bulegoetan artatu dira, beste % 26,85a telefonoz. Aurreko urtearekiko alderatuz, 2021 urtean 2.069 hitzordu izan ziren, 6 gehiago.

Herritarrei etxetan egindako bisitetan igoera nabarmen bat egon da aurreko urteekiko. Hala, 2021 irten 214 etxeko bisita egin dira, aurreko urteekin alderatuz igoera nabarmena eman delarik. Honela, 2020 urtearekin alderatuta 198 bisita gehiago eman dira. (kontutan eduki behar da 2020 urtea COVID urtea izan zela eta etxeetako bisitak nabarmen jaitsi zirela. Hala era, 2019 urtearekin alderatuta 4,1 bider hazi dira). Honen arrazoi nagusia da mendekotasuna egora onartua eta diru laguntza bat jasotzen duten herritarrei etxean jarraipen bisitak egiten hasi garela. Bisita hauek Bergarako Udala eta Aldundiaren artean sinatutako hitzarmenaren baitan kokatzen dira.

Hitzordu zein etxeko bisiten bidez artatutako herritarren kopuruaz gain, herritarrak artatzeko gainontzeko modalitate guztietan (leihatilan kontsultak, telefono kontsultak, email kontsulta, ...) jaitsiera nabaria eman da.

Bestalde, departamenduko koordinazio (bai udaletxe barruan zein beste arlo batzuetako profesional, erakunde, elkarte edo eragileekin), dokumentazioa (txostenak, kasuen jarraipenerako transkripzioak, komunikazioak, ...) eta barne lanarekin erlazionatutako ekintzetan kopuru ere jaitsi egin da aurreko urtearekiko konparatuz. Hala ere, 2020an asko hazi zen beste urte batzuetakoarekin alderatuz, eta aurtengo jaitsiera ez den beste urte batzuekin konparatzen badugu, datuak hasi egiten dira. Azpimarratzekoa espedienteen dokumentazioarekin erlazionatutako ekintzak (txostenak eta espedienteen inguruko ekintzak) hazi egin direla. Azkenik, jaitsiera nabarmen bat eman da departamendu barruan egindako koordinazio bileratan.

Artatutako herritarrak eta jasotako ekintzak batera konputatzen baditugu, datu orokorrak beste urte batzuetakoen mailan azaltzen dira.

GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK




GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK



Espedientea zabaldutako pertsona berriak

Ondorengo taulan adierazte da azken urtetan espedientea zabaldu zaien pertsona berrien kopurua




Iturria: Bergarako Udala

2021 urtean **278** pertsonari lehen aldiz espedietea zabaldu zaie gizarte zerbitzuetan.

Bestalde, baijeki dagokionez, 2021 urtean **178 pertsonari baja** eman zaie.

Hauetatik 74 kanpora joan direlako izan dira eta 104 heriotzagatik.

Adinari dagokionez ez dago aldaketa nabarmenik beste urte batzuekin konparatuz.



Iturria: Bergarako Udala


GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK



GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK




Jatorriari dagokionez, Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileen gehiengoa Euskal Herri eta Estatukoa da, % 83ko portzentaian.



Iturria: Bergarako Udala

Ondorengo taulan biztanleriaren bilakaera adierazten da.

Bertan ikusten den bezala, gizarte zerbitzuetara hurbiltzen diren Euskal Herriko zein estatuko pertsonen kopuruak gora egiten ari da azken urteetan.



Iturria: Bergarako Udala


GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK



GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK



Generoari buruz, emakumeak % 56 izan dira gizonezkoak % 44.



Iturria: Bergarako Udala

GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK




GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK




1.750 espediente administratibo tramitatu dira 2021. urtean.


2021. urtearekiko alderatuz tramitatutako espedienteak % 15,35 igo dira.



Espedienteen bilakaera



Espedienteen banaketa anbitoari dagokionez



Iturria: Bergarako Udala


GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK



GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK



Espediente motari begiratzeko badiogu, 2015 – 2020. urtetako espediente bakoitzaren bilakaera ondorengoak izan da




Iturria: Bergarako Udala

Igoerak eman dira mendekotasun, 3.adina, enplegua, familiak eta gizarteratze arloan. 2020 urtean diru-laguntzak eta gizarteratzeko espedienteak bakarrik igo ziren, beste guztietan beherakada eman zelarik. Kontutan eduki behar da, 2020 urtea COVIDa azaldu zen urtea izan zela eta itxialdi egoeran egon zela. Egoera honek eragina eduki zuen espedienteen tramitazioan. 2021 urtean espedienteak 2020 urtearekiko igo egin dira, baina bakarrik 3.adinarekin eta gizarteratzearekin erlazioatutako espedienteek gailendu dituzte 2019ko arlo bereko espedienteen kopuruak. Beste guztiak, 2019ko kopuruen berdineko edo beherago azaltzen dira. Bestalde, jaitsierak eman dira Drogamendekotasunak, diru-laguntzak,

gizarte lankidetzaz, berdintasuna eta beste batzuk arloetako espedienteak. Aipatzeako da diru-laguntzen arloak edukitako jaitsiera. Jaitsiera honen arrazoia ere COVID izurritearen agertaldiarekin lotuta dago. Izurritearen ondorioz herritarrak etxean itxialdia egin behar izan zutenean oinarritzko premiei erantzun ahal izateko baliabiderik gabe geratu ziren eta Udalak premia hauek asetzeko diru-laguntza bereziak sortu eta banatu beharra eduki zuen 2020 urtean. Hala ere, iazko urtearekiko jaitsiera bat eman bada ere, aurreko urteetako diru-laguntzen espedienteekin konparatzen baditugu 2021eko espedienteak, 2016tik diru-laguntzen arloan tramitatutako espediente gehien tramitatu dira.

Espedienteak **sexuari** dagokionez,



Iturria: Bergarako Udala


GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK



GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK




Jatorriari dagokionez,



Iturria: Bergarako Udala

Espedienteen jatorriaren bilakaera %



Iturria: Bergarako Udala

Grafikan ikusten den bezala, tramitatutako espediente gehienak estatuko pertsonen izan dira.

Datu hau bat dator gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen jatorriarekin.


GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK



GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK




Adinari dagokionez,



Iturria: Bergarako Udala

Zabaldutako espedienteen kopuru nagusienea 65 urtetik gorako pertsonena izan da.

DEPARTAMENDUA ATALEZ ATAL





3. ADINA




Espediente kopurua: 474 (% 24,98)

Generoa : % 63,50a emakumea eta % 36,49a gizonezkoa.


Gastua: 1.001.144,50€ (% 40,52a)

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan




Iturria: Bergarako Udala

Espedienteen banaketa




3. ADINA



3. ADINA



3. adina atalaren gastu bilakaera azken urteetan



Iturria: Bergarako Udala

RAI Balorazioa

Zer da

3. adineko pertsonen eguneko zentroa edo egoitza bat eskatzen dutenean, aurrez balorazio bat egiten da egokien zaizkien baliabide eta zaintzak zeintzuk diren ezarriko dituen.

DANERA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
247	143	104

Etxeko laguntza zerbitzua

Zer da

Ezintasun fisiko-psikiko-sensorial edo sozial baten ondorioz, eguneko bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsona edota familiei euren etxean eskainitako laguntza da. Laguntza hau etxeko oinarritzko lanak, zainketa pertsonalekoak edo heziketakoak burutzeko da eta helburua du pertsona-familiak euren etxeetan oinarritzko premiak estalita bizi izaten jarraitzea.

Zerbitzuaren deskribapen orokorra


Artatutako kasu kopurua eta pertsona

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
KASUAK	109	97	85	87	89	86	100	91	93	95	100
PERTSONAK	160	119	109	114	120	111	133	125	122	121	122

Kasu berriak: 27 (iaz 22)

Bajak: 18 (iaz 20)

3. ADINA




3. ADINA




Kasuen profila

Mendekotasuna/ezintasuna




Iturria: Bergarako Udala

Bilakaera mendekotasunaren arabera %tan




Iturria: Bergarako Udala

3. ADINA




3. ADINA




* Bataz-besteko adina: 81,72 urte

Adinaren bilakera




Iturria: Bergarako Udala

Sexua %ekoetan



Iturria: Bergarako Udala


3. ADINA



3. ADINA




Generoen bilakaera portzentuala



Iturria: Bergarako Udala


Orduak:

Urteko ordu kopurua: 30.597




Iturria: Bergarako Udala


3. ADINA



3. ADINA




Orduen bilakaera portzentuala mendekotasunaren arabera



Iturria: Bergarako Udala


Azken urtetako orduen bilakaera ondorengo grafikoan ikusten da.

Orduen bilakaera





Iturria: Bergarako Udala

3. ADINA




3. ADINA




Urteko kostua: 732.954,48 €


Sarrerak: 398.057,56 €



Ekarpenaren bilakaera
portzentuala (%)



3. ADINA



3. ADINA



LABURPENA

2021. urtean etxeko laguntza zerbitzua jaso duten kasuen kopurua eta orduak gora egin duten, batez ere orduei dagokienean.

Profilari dagokionez, zerbitzu zein ordu kopuruan, mendekotasun/desgaitasun maila bat onartua duten onuradunak dira gehiengoa.

Bestalde, sexuari dagokionez, onuradunen gehiengoa emakumezkoa izaten jarraitzen du.

Beraz, etxeko laguntza zerbitzuko onuradunen profila, ia 82 urteko, emakumezkoa eta mendekotasun/desgaitasun duena da.

Kasuen intentsitateari dagokionez, mendeko/desgaitasuna duten kasuek hileko batz besteko 37,21 orduko zerbitzua eduki dute eta autonomoek 20,20 ordu hileko.

Finantzazioari dagokionez, azken urtetako joerari jarraituz ekarpenik handiena Udalak egiten du.

Tele-asistentzia zerbitzua

Zer da

Bakarrik bizi edo denbora luzean bakarrik egon behar duten pertsonen larrialdi egoera bat gertatuz gero laguntza edo arreta eskatzeko zerbitzua da.


105 eskaera eduki ditugu. (76 emakume eta 29 gizonezko) (2020. Urtean 86 eskaera). 2021. urte amaieran, **532** telelaguntza (355 emakume eta 116 gizonezko) martxan ditugu Bergaran (2020. urtean 471). Adinari dagokionez, telelaguntza adin tarte handiena duen taldea 85 – 90 urte tartekoa da.

2017-2021. urtean BETI-ON tele-asistentzia zerbitzuaren bitartez Bergaratik jasotako deiak


DEI MOTAK	2017	2018	2019	2020	2020
Gizarte mailako arazoak (erorketak eta beste batzuk)	56	35	73	68	59
Koordinazio bisitak (alta berriak edo errebisioak)	100	26	115	278	122
Esku-hartze teknikoak (konponketak eta mantenua)	143	189	251	212	277
Gizarte mailako larrialdiak (Suhilatzaile eta Ertzaintza eskuek hartzea behar du)	2	2	4	1	5
Tele-asistentziaren erabilerari buruzko zalantzak	59	29	48	62	71
Tele-asistentzia zantzu baina herritarrek ez du erantzuten	92	42	93	119	127
Hitz egitea / Lagun egitea / bakardadea	2	3	3	4	6
Osasun zerbitzuetarako hitzordua hartzea	10	18	8	12	12
Osasun arloarekin erlazionaturako deiak (osasun larrialdiak barne)	198	213	199	211	284
DANERA	662	557	794	967	963

Iturria: BetiON zerbitzua

3. ADINA



3. ADINA



Eguneko zentroak


Zer da

Eguneko zentroak gizarteak eskaintzen duen baliabide bat da, programa jakin batzuekin eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste batzuen laguntza behar duten 60 urte baino gehiagoko pertsonei. Laguntza 8 ordukoa da, horretarako bereziki prestatutako leku eta instalazioetan, langile eta programa jakin batzuk bitarteko direla. Eguneko Zentroko zerbitzuan sartzen da etxetik zentrora eta zentrotik etxerako garraioa.

21 eguneko plaza eskaera egon dira (16 emakume eta 5 gizonezko). 2020. urtean 10 eskaera egon ziren.

Kontuan eduki behar da COVID 19-agatik eguneko zentroak itxita egon ziren eta ondorioz eskaerak ere jaitsi egin ziren.

2021. urtean **48** Bergarar joan dira eguneko zentro batera. 2020. urtean 47 joan ziren.




Iturria: Bergarako Udala


2021 urtean Bergararrak eguneko zentroetan			
EGUNEKO ZENTROA	EMAKUMEA	GIZONA	GUZTIRA
ANTZUOLA. CD TORRESOROA	5	2	7
BERGARA. EZ URARTETXE	31	9	40
ZARAUTZ. MARIA ETXETXIKI EGUNEKO ZENTROA	1		1
GUZTIRA	37	11	48

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politika Departamendua

3. ADINA



3. ADINA




Egoitza

Behin betirako egoitza Zer da

Zerbitzu honen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko pertsonari, hainbat arrazoi direla eta, etxean bizi ezin direnean.

39 egoitza plaza eskaera egon dira (27 emakumeak eta 12 gizonezkoak). 2020. urtean 31 egon ziren. Ondorengo grafikan azken urteetako bilakaera azaltzen da.

Ondorengo grafikan azken urteetako bilakaera azaltzen da.




2021. urtean egoitza publiko/hitzartu batean sartu diren Bergararrak

DANERA	MIZPIRUALDEN	BERGARATIK KANPOA
39	21	18

2021. urtean Bergararrak adinekoen egoitzetan			
EGOITZA	EMAKUMEA	GIZONA	GUZTIRA
ARETXABALETA. R.DEBAGOIENA	9	4	13
ARETXABALETA. R.DEBAGOIENA.U.PSICOGERIATRICA	5		5
ARRASATE R. HOSPITAL SAN JUAN DE DIOS (COVID ZENTROA)	3		3
ARRASATE. R.ITURBIDE	2	1	3
ARRASATE. UNIDAD R. BENITO MENNI.U.PSICOGERIATRICA	1		1
BERGARA. R.MIZPIRUALDE	66	19	85
BERGARA. R.MIZPIRUALDE.U.PSICOGERIATRICA	18	3	21
DONOSTIA. R.ZORROAGA	1		1
EIBAR. R.EGO- GAIN.U.PSICOGERIATRICA	1	1	2
EIBAR. R.SAN ANDRES	1		1
ESKORIATZA. R.JOSE ARANA	3	1	4
OÑATI. R.SAN MARTIN	2		2
OÑATI. R.SAN MARTIN.U.PSICOGERIATRICA	1		1
SORALUZE. R.N.S. DE LA MERCED	1		2
ZIZURKIL. R.FRAISORO	2	1	1
GUZTIRA	115	30	145

Iturria:Gipuzkoako Foru Aldundia.


3. ADINA



3. ADINA



2021 urtean Mizpirualde egoitzan sartu diren pertsonen batanez-beste **7,27 hilabete** eman dute **itxaron zerrenda** (2020 urtean 4,84). Jarraian, azken urteetan Mizpirualde egoitzan sartu diren pertsonen batanaz beste sartzeko itxaron duten hilabeteak bilakaera adierazten dira.



Aldi baterako egoitza Zer da

Zerbitzu honen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko ezinduei, hainbat arrazoi direla eta, denboraldi jakin batez etxean bizi ezin direnean eta beti ere gero etxera itzultzeko helburuarekin.

URTEA	DANERA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
2015	21	12	9
2016	37	23	9
2017	33	23	10
2018	22	18	4
2019	14	12	2
2020	9	8	1
2021	6	5	1

Iturria: Bergarako Udala

3. adineko elkarteak

Zer da

Atal honetan, Bergarako Udalak 3. adineko pertsonentzako aisialdia, elkartegintza eta beste ekintza batzuetan gastatutako dirua aipatzen da.

Danera gastatutako dirua

68.580,18 €

Kontzeptuta:


- Boni Laskurain ibilbidean dagoen gizarte etxearen mantenua
- 87 urtetik gorako Bergararrei omenaldia
- Gizarte etxeetan egindako obrak

44.411,46 €

3.298,04 €

20.870,68 €


3. ADINA



3. ADINA



Bestalde, Bergaran 3 gizarte etxe daude: Boni Laskurain, Martoko eta Zabalotegikoa. Boni Laskurain eta Martoko-ko gizarte etxeetan 2021 urtean ibiltako jende kopuru totala honakoa da:



Iturria: EasyCount, S.L

COVID19aren ondoriozko 2020ko itxialdiaren ondoren, 2021 urtean berriro ireki ziren gizarte etxeak nahiz eta erabilera ez da ohikoa izan, hainbat muga finkatuta behar izan zirelarik erabiltzaile kopurua eta ekintzei dagokionez. Hala ere, 2021 urtean gizarte etxeetako erabilpenean errekupeazioa eman da nahiz eta oso urruti egon pandemia aurreko garaiekiko.

SENDIAN programa

Zer da

Adineko pertsona ezinduekin bizi diren familiei laguntzeko helburua duen programa da. Programa honen bitartez hainbat laguntza eskaintzen dira, horien artean, adineko pertsona ezindu baten zaintzailearentzako formakuntza ikastaroak, laguntza psikologikoa eta asteburuak eta jai egunak egoitza eta eguneko zentroetan igarotzeko plazak.

Autolaguntza taldean parte-hartzea

Hilean behin eta psikologo baten gidaritzarekin mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileak elkartzen dira zainketek eragindako bizipen, esperientziak, arazo, gatazkak, ... elkartrukatu eta denen artean irtenbideak bilatu asmoz.

2021. urtean pertsona **1**-ek egin dute programa honetan parte-hartzeko eskaera.


9 saio izan dira eta **28** emakume eta **4** gizonezkoak parte hartu dute.

Asteburu eta jai egunak eguneko zentro eta/edo egoitzan igarotzea


Mendekotasuna duen pertsona bat zaintzen ari diren zaintzaileek aukera dute asteburu edo jai egunetan atseden hartzea pertsona mendekoa eguneko zentro edo egoitza batera eramanda.

Orotara, 4 pertsona ibili dira eguneko zentroetan asteburu eta jai egunetan. Denak emakumeak. Egoitzan berriz, ez da inor ibili.

3. ADINA



3. ADINA



Laguntza psikologikoa

Mendekotasuna duen pertsona bat zaintzen ari diren senideek aukera dute zainketa lanak sortutako ondorio psikologikoei aurre egiteko psikologo baten laguntza jasotzeko. 2021. urtean pertsona bakarrak egin du eskaera.

Gizarte premiak antzeman eta sute arriskuak ekiditeko programa

Zer da

Adin konkretu batetik gora bakarrik edo beste pertsona nagusi batekin bizi diren herritarrekin burututako prebentzioa programa bat da. 80 urte beteak eta 65 urtetik gorako bizi-laguna batekin bizi diren etxetara iritsi gara.

Programa honen bidez bi helburu lortu nahi dira:

- Herritar hauen gizarte premiak ezagutu, gizarte zerbitzu eta baliabideei buruzko informazioa eman eta laguntzarik behar izanez gero, laguntza eskaini.
- Herritar hauen etxeetan egon daitezkeen sute arriskuak aurreikusi eta ezagutu eta hauek ekiditeko alarma sistema bat jarri.

2020/12/31ean danera **594 etxebizi ikuskatuta** eta **741 su-detektagailu** jarrita daude. Bestalde, **594** etxebizitzetan dauden gizarte premien azterketa lana egin da.

Programaren kostua **27.551,70 €**-tako izan da.

Erabilera anitzeko etxebizitza

Zer da

Pertsona nagusientzako bizilekua da, ohiko etxebizitza eta 3. adineko egoitzaren arteko baliabide bat.


Etxebizitza pertsona nagusi eta fisiko-zein psikiko mailan autonomoei (eguneroko ekintzetarako – jaiki, jantzi, garbitu, kalera irten, elkarbizitza egokia mantendua... – besteen beharrik ez dutenak) zuzenduta dago.

Eskaintzen diren zerbitzu orokorrak dira: alojamendua, otorduak eta arropen kudeaketa. Etxebizitza 6 pertsonentzako da.

2021. urtean **6** erabiltzaile izan dira (1 emakumezkoa eta 5 gizonezkoak). 2020. urtean 9 pertsonak erabili zuten.

Urteko plaza batez besteko okupazioa maila % 81,94koa izan da.


2015 – 2021 erabiltzaileen bilakaera




Iturria: Bergarako Udala

Urteko kostua; 55.321,48 €


3. ADINA



3. ADINA



Erabilera anitzeko etxebizitza



Iturria: Bergarako Udala

ARLOAREN LABURPENA

2021. urteko memorian antzeman daiteke hirugarren adinekoen baliabideetara egin diren eskaeren kopuruak nabarmen gora egin dutela. 2020.urtean etxean eskaintzen diren zerbitzuetarako eskaerak igo ziren. 2021.urtean, ordea, etxetik kanpo zaintzeko zerbitzuetarako eskaerak izan dira igoera izan dutenak; hala nola, eguneko zentroak eta egoitzak. Aldi baterako egonaldien kasuan eskaerek behera egin dute. Honen arrazoia da, zerbitzua ez dela urte osoan zehar zabalik egon, soilik, udan eta gabonetan. Gainera, 40 plaza zeuden Gipuzkoa osorako. Bestalde, garrantzitsua da nabarmentzea, egoitzarako plaza eskuratzeko batez besteko denbora asko handitu dela; 7,27 hilabete itxaron behar da (2020.urtean 4,84 hilabete).

Laburbilduz datuen arabera, geroz eta jende nagusiagoa dago herrian eta zerbitzu gehiagotarako premia dute. Identifikatzen diren ahulezia nabarmenak egoitza eta eguneko zentroko plazak dira, urriak dira dugun biztanleria eta honen beharrak asetzeko. Bestalde, etxeko laguntza zerbitzua indargune bezala sailkatu genezake urtetik urtera erabiltzaile kopuruak gora egiten du, baita gastuak ere, baina orokorrean ondo funtzionatzen duen zerbitzua dela esan genezake.

MENDEKOTASUN EGOERAK



MEDEKOTASUN EGOERAK




Espediente kopurua: 778 (% 42,05a)

Generoa: % 53,72 emakumea eta % 46,27 gizonezkoa.


Gastua: 67.692,22 €, % 2,75

Espedienteen bilakaera



Espedienteen banaketa

Laguntzak




MENDEKOTASUN EGOERAK



MEDEKOTASUN EGOERAK



Mendekotasunean gastuaren bilakaera azken urtetan



Iturria: Bergarako Udala

MBB mendekotasun balorazioa


Zer da

Mendekotasun egoera bat duen pertsona batekin edozein esku-hartze egin aurretik balorazio bat egiten da. Mendekotasun balorazio honek zehaztuko digu pertsona honek zein laguntzetarako eskubidea duen.

272 Mendekotasun balorazio eskaera egon dira. (2020. Urtean 216)

2021eko abenduaren 31ean Bergaran **575 pertsona mendekotasun egoeran** zeuden.

Graduaren arabera



Iturria: Bergarako Udala

MEDEKOTASUN EGOERAK



MEDEKOTASUN EGOERAK



575 pertsonak daukate mendekotasun maila bat onartua. Herriaren % 3,94ak.

SEXU	GRADUA 1	GRADUA 2	GRADUA 3	TOTALA	%
EMAKUMEA	135	137	98	370	64,3
GIZONA	95	70	40	205	35,7
DANERA	230	207	138	575	100

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Dezgaitasuna edo minusbaliatasuna

Zer da

Edozein esku-hartze egin aurretik, gaixotasun, lesio edo ezgaitasun bat duen edonork ezintasunaren balorazioa eska dezake, eskubideak zehazteaz gain, egokien zaizkien baliabide eta zaintzak ezarriko dituen.

Bestalde, ezintasun maila baloratuta edukitzea abantaila izango da lanean hasteko, mugikortasunean laguntzak jasotzeko eta autonomia pertsonala edukitzeko, baita abantaila sozial eta ekonomikoak jasotzeko ere.

156 ezintasun balorazio eskaera egon dira. (2020. urtean 134)

DANERA	EMAKUMEA	GIZONEZKOAK
156	69	87

Iturria: Bergarako Udala

GRADUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	%
33 - 64	358	409	767	61,4
65-74	116	116	232	18,6
75-100	142	109	251	20,1
GUZTIRA	616	634	1.250	100,00

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

1.250 pertsonak daukate ezgaitasun kalifikazioa. Herriaren % 8,57a.

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa

Zer da

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez, Foru Aldundiari eguneko zentroetako eta egoitza arreta iraunkorreko zerbitzuko plaza bat eskatu eta 3 hilabeteko epean erantzunik jaso ez duten kasuei eguneko zentroko edo egoitzako plaza pribatu bat ordaintzen laguntzeko diru laguntza bat da.

2021. urtean **12 laguntza** eskaera tramitatu dira. (2020. urtean 14)

Urtean jasotako laguntza kopuruak

SEXUA	ONURADUN KOPURUA	URTEKO GASTUA
Emakumeak	7	12.800,00
Gizonak	5	18.612,53
GUZTIRA	12	31.412,53

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

MEDEKOTASUN EGOERAK



MEDEKOTASUN EGOERAK



Familia inguruneko zaintzetarako eta profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa

Zer da

Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren bitartez familia inguruneko zaintzaile ez profesionalak mendeko pertsonari ematen dion arretaren gastuak ordaintzen lagundu nahi da.

38 laguntza berri tramitatu dira. (2020. urtean 27)

2021. urtean 211 pertsonak jaso dute laguntza. (2020. urtean 216 pertsonak jaso zuten laguntza)

SEXUA	ONURADUN KOPURUA	URTEKO GASTUA
Emakumeak	120	306.035,44
Gizonak	91	229.017,96
GUZTIRA	211	535.053,40

Iturria: Bergarako Udala

Zaintzaileen profila

SEXUA	Zaintzailearen profila	%
EMAKUMEZKOA	141	65,58
GIZONEZKOA	74	34,41
GUZTIRA	215	100

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

Zer da

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren bitartez mendekotasun handiko pertsonen autonomia sustatzeko laguntzaile pertsonalen kontratazioak ekarritako gastuak ordaintzen lagundu nahi da.

31 laguntza berri tramitatu dira. (2020. urtean 26)

2021. urtean 121 pertsonak jaso dute laguntza. (2020. urtean 119 pertsonak jaso zuten laguntza).

SEXUA	ONURADUN KOPURUA	URTEKO GASTUA
Emakumeak	87	411.924,18
Gizonak	34	150.837,92
GUZTIRA	121	562.762,10

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Zaintzaileen profila

SEXUA	Zaintzailearen profila	%
EMAKUMEZKOA	135	93,10
GIZONEZKOA	10	6,89
GUZTIRA	145	100

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Zaintzaileen profilari begiratuta, bai familia barruko ZAINZAILA zein kontratatutakoa, gehiengoa EMAKUMEA izaten jarraitzen du.

1.129.228,03€ banatu ditu Foru Aldundiak Mendekotasun maila bat duten pertsonen zaintza bermatzeko.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

MEDEKOTASUN EGOERAK



MEDEKOTASUN EGOERAK



Laguntza teknikoak

Zer da

Laguntza honekin ezgaitasunen bat izan edo beste batzuen menpe bizi diren pertsonei lagundu nahi zaie eguneroko jardueretan autonomo izan daitezen eta behar duten lekuetara iritsi daitezen. Ezgaitasuna edo urritasuna prebenitu, konpentsatu, arindu edo kentzen saiatuko da honako laguntza hauen bitartez: Mugikortasunerako laguntzak: aulki bereziak, altzari egokituak, etab. Irisgarritasuna hobetzeko laguntzak: eskailerak gainditzeko laguntzak, etxe barruko egokitzapenak, etab. Komunikaziorako laguntzak: entzuteko protesiak, beste pertsonekin komunikatzeko gailuak, e.a.

107 pertsonak eskatu dituzte laguntza teknikoak. (2020 urtean 82)

DANERA	EMAKUMEA	GIZONEZKOAK
107	69	38

Iturria: Bergarako Udala


107 pertsona hauen artean, **208** laguntza eskatu dira eta onartuak **128** laguntza desberdin izan dira.

	DANERA	DIRU-LAGUNTZA BERRESKURAGA- RRIAK	DIRU-LAGUNTZA EZ BERRESKUGARRIAK	STOCK	KOPURUA €-tan
ESKATUTAKOAK *	208	48	160		
EMANDAKOAK	128	23	7	98	26.621,35€

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia


Azken urteetako bilakaera

Ezintasuna-laguntza teknikoa onartutakoak



Iturria: Bergarako Udala

MEDEKOTASUN EGOERAK



MEDEKOTASUN EGOERAK



Laguntza teknikoen lagapena

Zer da


Udaletxeak bere esku dituen hainbat laguntza tekniko (hala nola muletak, ohe artikulatuak, garabiak, gurpildun aulkiak, scala-mobila, bainurako aulki bereziak, taca-taca-k eta koltxoi bereziak herritarrei lagatzeko aukera ematen du Foru Aldundiari eskatutako laguntzak iritsi bitartean.

2021. urtean **56** pertsonen egin dituzte eskaerak, danera **92** laguntza tekniko laga direlarik. (2020. urtean, 56 pertsonen 100 laguntza eskaera egin zituzten).

Utzitakako Udal laguntza teknikoak izan dira:

LAGUNTZA	2021
Ohea	18
Ohearentzako barandilak	13
Bainurako aulki biribilkariak	6
Dutxarako gurpildun aulkiak	16
Taka-takak	0
Garabiak	19
Scala-mobila	6
Plataforma	0
Gurpildunaulkia	0
Airezko koltxoak	6
Triangelu/Potentziadoreak	8
DANERA	92

Laguntza tekniko lagapena



Iturria: Bergarako Udala


MEDEKOTASUN EGOERAK



MEDEKOTASUN EGOERAK



Udal laguntza teknikoen lagapena



Iturria: Bergarako Udala

Lagapen zerbitzua, hau da, laguntza tekniko hauek etxeetara eraman, erabilpenari buruzko xehetasunak eman eta premiarik ez dagoenean berriro gordailua eramateko zerbitzuek, **10.182,75€** gastatu dira.

Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko Udal bonifikazioak

Zer da

Irisgarritasuna eta bizigarritasuna oztopatzen duten arkitekturako trabak kentzeko lanengatik ordaindu beharreko udal zergan aplikatzen den %90eko hobaria.

2020. urtean emandako hobariak

KONTZEPTUA	DANERA	KOPURUAK
IGOGAILUA JARTZEA	9	34.154,07 €
ETXE BARRUKO OZTOPOAK	0	0
DANERA	9	34.154,07 €

Iturria: Bergarako Udala

MEDEKOTASUN EGOERAK



MENDEKOTASUN EGOERAK



Eguneko zentroak eta egoitzak pertsona ezinduentzako

Zer da

Eguneko zentroak, gizarteak eskaintzen duen baliabide bat da, programa jakin batzuekin, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste batzuen laguntza behar duten 60 urtetik beherako pertsona ezinduentzako.

Egoitzen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko pertsonari, hainbat arrazoi direla eta, etxean bizi ezin direnean.

2021. urtean egindako eskaria 4 izan dira:

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA
Desgaitasuneko eguneko zentroa	Emakumeak	2
Desgaitasuneko egoitza	Gizonak	1
Osasun mentaleko egoitza	Emakumeak	1

Elbarrituentzako aparkaleku txartela


Zer da

Eguneroko bizitza erraztu, irisgarritasuna eta autonomia bultzatu asmoz, ezintasuna eta mugikortasun arazoak aitortuta dituzten pertsonen, ezinduentzako gordeta dauden auto aparkalekuak erabiltzeko aukera ematen dien txartela da.

2021. urtean **82** aparkaleku txartel eman dira.

Aparkaleku txartelen bilakaera azken urteotan honakoa izan da:


Ezintasunak-aparkalekua



Iturria: Bergarako Udala

66 aparkaleku daude elbarrituentzat Bergaran

MEDEKOTASUN EGOERAK



MEDEKOTASUN EGOERAK



Elbarrituentzako aparkaleku erreserba

Zer da

Eguneroko bizitza erraztu, irisgarritasuna eta autonomia bultzatu asmoz, ezintasuna eta mugikortasun arazoak aitortuta dituzten auto gidarientzako erabilpen eskusiboko aparkalekuak dira. Aparkaleku hauek, norberaren etxebizitza edo lantokitik ahalik eta gertuen jartzen dira.

8 aparkaleku erreserba **eskaera** egon dira.

16 aparkaleku erreserba daude Bergaran

Mendekotasun egoeren jarraipenak

Zer da


Mendekotasuneko prestazio ekonomikoen hartzaile diren titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko baldintzak zehazten dituen 24/2017 Foru Dekretuak, abenduaren 12koak, 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bergarako Udalak sinatutako hitzarmenaren bidez, Bergarako Udalak herrian erroldatutako mendekotasuneko prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiten da.

Jarraipenak indibidualak dira eta kasuz kasu etxeetara bisitak eginda egiten dira (gizarte zerbitzuen sareko zerbitzu publiko bat jasotzen duten diru-laguntzen onuradunen kasuan telefonoz edo udaletxean ere egin daitezke) 2021. urtean **203** jarraipen egin ziren (2020 urtean 254 jarraipen egin ziren, baina COVID19aren ondorioz, etxeetan 42 bakarrik egin ziren)

Egindako jarraipenagatik Bergarako Udalak **15.627,84 €** jaso zituen Gipuzkoako Foru Aldunditik.

Jarraipenen bilakaera

Urtea	Jarraipen kopurua	Ekarpenak
2020	254	4.925,50€
2021	203	15.627,84€



Iturria: Bergarako Udala

MEDEKOTASUN EGOERAK



MENDEKOTASUN EGOERAK



Interpretazio zerbitzua

Zer da

2018ko azaroaz geroztik Bergarako Udalak Zeinu Interpretazio zerbitzua martxan du entzumen arazoak izan eta zeinu hizkuntza erabiltzen duten herritarrei komunikazioan laguntzeko.

Eskaintzen diren zerbitzuak honakoak dira:

- Entzumen arazoak dituen pertsonak kontsulta edo tramitazioa egin nahi duen departamendua edo arduradun politikoarekin hitzorduan Zeinu Hizkuntza interpreta baten laguntza edukitzeko aukera eskaintzen da.
- Udaletxetik antolatzen diren ekintzetan (plenoak, prentsa agerraldiak, hitzaldiak, ipuin kontalariak, bisita gidatuak, herritarrekin bilera, e.a...) zeinu interpretazio zerbitzua eskaini ahal izango da.
- WEB orriko zenbait eduki zeinu hizkuntza bidez argitaratuta daude.

2021 urtean WEB gunearen egokitzapenak eta hainbat aurkezpen, hitzaldi eta bisita gidatutan zeinu interpretazio zerbitzua egon da.

Danera **5** ekintzetan eskaini da zerbitzua eta **965 €** gastatu dira.

Arloaren balorazioa


2021.urteko memorian antzeman daiteke 2020ko memoriarekin alderatuz mendekotasun balorazioa egiteko espedienteen kopurua nabarmen igo dela. Hirugarren adineko atalean aipatzen den bezala, biztanleria geroz eta helduagoa da eta honek mendekotasun egoera gehiago eragiten ditu.

Aipatzekoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak aitortutako mendekotasun egoeran dauden % 64,3a emakumeak direla. Desgaitasun balorazioei erreparatzen bazaie berriz, kontrakoa gertatzen da % 55a gizonak dira.

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen kopurua igo den bezala, pertsona honek zaintzearen ematen diren diru laguntzak ere igo egin dira.

Deigarria da adibidez, Familia inguruneko zaintzetarako eta profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa (PECEF) eta Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (PEAP) jasotzen duten pertsonen zaintzaileak % 65,58an (PECE) eta % 93,10ean (PEAP) emakumeak direla, hau da, mendekotasuna egoeren zainketak feminizatuta daude.

MENDEKOTASUN EGOERAK





PRESTAZIO EKONOMIKOAK



PRESTAZIO EKONOMIKOA




Espediente kopurua: 219 (%12,51)

Generoa: % 56,56a emakumezkoa eta % 43,44a gizonezkoa


Gastua: 298.861,89 €, % 12,10a

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan

Espedienteen bilakaera




Espedienteen banaketa



Iturria: Bergarako Udala


PRESTAZIO EKONOMIKOA



PRESTAZIO EKONOMIKOA



Prestazio ekonomikoak atalaren gastu bilakaera



Iturria: Bergarako Udala

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzak

Zer da

Prestazio ekonomiko hau premia puntualei, batez ere etxebizitzako gastuei (alokairua, hipoteka, argia, ura, gasa,...) aurre egiteko ematen den laguntza bat da. Ez da aldiroaldirokoa.


Laguntza jasotzaileak edo honen familiako edozein kidek eskura dezakeen edozein baliabide edo prestazioren ordezkua eta osagarria ere izan daiteke.

2013an Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzak sortu zituen Bergarako Udalak. Funtsean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen araudian oinarritzen da eta Jaurlaritzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen aurrekontua agortutakoan hemendik kudeatzen hasten da.

2021. urtean jasotako eskaerak: 192

2021. urtean onartutako laguntzak: 121
74 GLL eta 47 UDAL GLL

PRESTAZIO EKONOMIKOA




PRESTAZIO EKONOMIKOA



Ondorengo grafikoan azken urteetan jasotako eskaeren bilakaera azaltzen da.
GLL eta GLUL espediente bilakaera


GLL eta GLUL espedienteen bilakaera



Iturria: Bergarako Udala

2021. urtean eskatutako laguntzen onuradunen profila honakoa da:


* Sexua




Iturria: Bergarako Udala

Aurreko urteetako joera mantentzen da, emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira dirulaguntzak eskatzen. Azken urte honetan, diferentzia murriztu egin da.

PRESTAZIO EKONOMIKOA




PRESTAZIO EKONOMIKOA



Iturria: Bergarako Udala


Aurreko urteekin alderatuta, laguntza eskatu duten etorkinak estatutukoak baino gehiago dira.

* 3. Adinekoak



Iturria: Bergarako Udala


PRESTAZIO EKONOMIKOA



PRESTAZIO EKONOMIKOA



* Guraso bakarreko familiak



Iturria: Bergarako Udala


Onartutako laguntzen ezaugarriak

	KOPURUA	ALOKAIRUA/ HIPOTEKA	MANTENUA (*)		BESTEAK	DANERA
			Energia	Besteak		
GLL	74	65.509,23€	63.875,60 €		14.005,44€	143.390,27 €
			34.295,55 €	29.580,05 €		
UDAL GLL	47	24.105,00€	16.985 €		9.902,64 €	50.992,64 €
			8.247,50 €	8.737,50 €		
TOTALA	121	89.614,23 €	80.860,60 €		23.908, 08 €	194.382,91€
			42.543,05 €	38.317,55 €		

Iturria: Bergarako Udala

(*) Mantenu (Argia, ura, gasa, telefonoa,...)

PRESTAZIO EKONOMIKOA




PRESTAZIO EKONOMIKOA




Gastua

Gastuaren sailkapena %etan




Iturria: Bergarako Udala

Bilakaera



Iturria: Bergarako Udala


PRESTAZIO EKONOMIKOA



PRESTAZIO EKONOMIKOA



Sarrerak



Iturria: Bergarako Udala

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) eta etxebizitza gastuei aurre egiteko laguntza osagarria (EGLO):

Zer da


Aldiro-aldiri ematen diren prestazio ekonomikoak dira eta herritarren jateko oinarrizko premiak eta etxebizitzako gastuak asetzeko dira. Elkarbizitzako unitate bateko edozein kidek eskuratu dezakeen edozein baliabide eta prestazio ekonomikoren osagarria da. Diru-laguntza hau LANBIDEk kudeatzen du.

	DBE Onuradunak	€	E.G.L.O Onuradunak	€	TOTALA
2021	263	1.302.811	134	299.712	1.604.523
2020	234	1.234.191	121	269.830	1.504.021
2019	255	1.245.642	114	286.867	1.532.509
2018	293	1.407.571	143	316.804	1.724.375
2017	325	1.641.433	170	399.106	2.040.539
2016	315	2.035.218	158	373.182	2.408.400
2015	305	1.918.776	140	323.476	2.242.542

Iturria: Lanbide

	DBE Onuradunak	€	E.G.L.O Onuradunak	€
GIZONAK	123	563.262 €	72	152.901€
EMAKUMEAK	140	739.550 €	62	146.811€€


PRESTAZIO EKONOMIKOA



PRESTAZIO EKONOMIKOA




Onuradunak sexoaren arabera




Iturria: Lanbide

DBE jasotzaileen bilakaera



Iturria: Lanbide

PRESTAZIO EKONOMIKOA



PRESTAZIO EKONOMIKOA



Kotizatu Gabekoen pentsioak

Zer da

Izenak azaltzen duen bezala, gizarte segurantzako sistema arruntean pentsioa jasotzeko kotizatu ez duten pertsonak pentsio bat jasotzeko aukera da. Bi motatakoak dira: jubilazio eta ezintasunekoak.

2021. urtean 1 pentsio berri onartu dira eta denera 44 onuradun egon dira

URTEA	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
KOPURUA	33	32	37	36	39	39	43	47	37	XX	45	44

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

2021. urtean jasotako pentsioak

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA(*)
44	245.184,50 €

(*) Foru Aldundiak banatuta

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Profilak

* Pentsio modalitatea

EZINGAITASUNAGATIK	ZAHARTZAROAGATIK
27	17
% 61,33	% 38,63

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Ongizate Fondoko Pentsioak

Zer da

Foru Aldundiak gestionatzen duen prestazio ekonomikoa da eta oinarritzko premiei aurre egiteko da. Prestazio hau eskuratzeko eskatzaileak ezin du diru-sarrerarik eduki eta ez du aurretiko kotizazio beharrik. Behin prestazioa eskuratuta, onuraduna izaten jarraitzeko ezinbestekoa izango da baldintza horiek une oro betetzea.

Bi mota daude: Zahartzaro eta Gaixotasun-pentsioa.

2021. urtean jasotako pentsio kopurua

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA(*)
1	2.098,04 €

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Kopuru handiagoko pentsio eta prestazioengatik ordezkutzen ari da eta 2020. urtean modalitate honetako 0 pentsio tramitatu dira.

LISMI – Elbarrituen gizarteratzeko legea

Zer da


Foru Aldundiak gestionatzen duen laguntza da, eta Minusbaliatuen garraio-gastuak diruz konpentsatzeko balio du. Prestazio hau eskuratzeko, eskatzaileak ez du diru-sarrerarik izango eta ez du aurretik kotizatu beharrik izango.

2021. urtean onuradun bakarra egon da.

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA(*)
1	2.098,04 €

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

PRESTAZIO EKONOMIKOA



PRESTAZIO EKONOMIKOA



Preso eta deportatuentzako dirulaguntzak

Zer da

Arrazoi ezberdinengatik preso edo deportatuta dauden herritarrei familiak egiten dizkien bisitek sortutako gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoak dira.

2021. urtean emandako laguntzak

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA
1	1.750,80 €

Iturria: Bergarako Udala

Gazteen alokairu sozialerako diru laguntzak

Zer da

Laguntza hau 2017an sortu zen eta bere xedea Bergarako udalerrian ohiko egoitza alokairu erregimenean duten 18 eta 30 urte bitarteko gazteei etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzea du. Diru laguntza honekin, udalak bi helburu nagusi lortu nahi ditu:

- 1) Alde batetik, gazteen emantzipazio bidean laguntzea eta
- 2) Bestetik, Bergaran etxebizitza alokairua sustatzea.


2021. Urtean egindako Gazteentzako alokairu sozialaren diru-laguntzen laburpena

JASOTAKO ESKAERA KOPURUA	17 ESKAERA
ONARTUTAKO ESKAERAK	13 ESKAERA
UKATUTAKO ESKAERAK	4 ESKAERA
AURREKONTUA	35.000,00 €
GASTU TOTALA	16.465,90 €

Iturria: Bergarako Udala


Laguntza eskatzaileen sexuari dagokionez,

Alokairuko diru laguntzak-sexua



Iturria: Bergarako Udala


PRESTAZIO EKONOMIKOA



PRESTAZIO EKONOMIKOA



Jatorria



Iturria: Bergarako Udala


Gizarteratzeko balorazioak eta esku-hartzeak

Zer da


Bazterketa egoeren identifikazioa egiten, eta, hala badagokio, haien mailaketa ere bai. Orobat, bideratzen ditu eskatzaileak beren beharrazanez ondoen erantzuten dieten zerbitzurantz edo prestazio ekonomikorantz, edota zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen arteko konbinaziora, haiek eskatzeko betebeharrak betetzen badituzte, betiere. Barne hartzen ditu: Eskaeren balorazioa, egon daitezkeen gizarte bazterketako egoerei dagokienez. Hala badagokio, gizarte diagnostiko espezializatuak egitea eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan egoki gertatzen diren baliabideetara bideratzea, edo, bidezkotzat joz gero, erabiltzailea beste arreta sistema edo politika batzuetara desbideratzea.

Horretarako, gizarte bazterketako egoera batean egotearen zantzuak aurkeztu behar dira, balorazio tresna komunetan definitzen den moduan.

2021 urtean eskatutako BARE balorazioak 10 izan dira. Hauetatik 7 balorazio egin ziren. 3 balorazioa egin gabe utzi ziren; 2 eskatzailea ezin izan zelako topatu (desagertu egin zen) eta 1-ek uko egin zion.




PRESTAZIO EKONOMIKOA




PRESTAZIO EKONOMIKOA




Jatorria



Bazterkeria balorazioaren emaitza




PRESTAZIO EKONOMIKOA




PRESTAZIO EKONOMIKOA




Bazterkeria baloraziotik eratorritako orientazioak



Bazterkeria baloraziotik eratorritako eskaerak



PRESTAZIO EKONOMIKOA



PRESTAZIO EKONOMIKOA



Zerbitzu psikosozial eta psikohezitzailea

Zer da

Zerbitzu hau gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean babesteko harreman-prestazio indibidual, familiako edo taldeko batzuetan datza. Prestazio horiek familiaren bizilekuan (etxeke hezkuntza, familiaren gaineko oinarrizko esku-hartzea) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-arloko bitartekaritza) gara daitezke. Zerbitzu honen helburuak dira erabiltzaileek:

a) autonomiaz moldatzea, gizarteratzea eta familia- eta komunitate-inguruneke bizikidetzak egokia bultzatuko duten gaitasun pertsonalak, familiakoak edo taldekoak (jarrerak, gaitasunak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) eskuratzea eta garatzea;

b) ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desagokiak beste egoki batzuekin ordezkatzeko. Zerbitzu honen bide artatzen dira adin txikikoen babesgabekotasun, adikzioak eta bazterkeria arriskuan dauden pertsonak. Bergarako Udalak zerbitzua martxan jartzeko prozesua 2020an abiatu zuen eta 2021an egindako zerbitzuaren kontratazio prozesuaren ondoren, ekainaren 1ean martxan jarri zen LORRATZ elkartearen eskutik. 1.- Zerbitzuaren garapena eta barne koordinaziorako sisteman finkatzen hasi dira. Zentzu honetan, zerbitzuaren garapen eta inplementazio fasea jorratu da.

Begarako Udalak zerbitzua martxan jartzeko prozesua 2020an abiatu zuen eta 2021an egindako zerbitzuaren kontratazio prozesuaren ondoren, ekainaren 1ean martxan jarri zen LORRATZ elkartearen eskutik.

Zerbitzu psikosoziala eta psikohezitzailea eskaintzeko LORRATZ-en lan taldea honako profesionalen osatuta dago; 2 hezitzaile lan jardun osora, terapeuta bat la jardun osora eta koordinatzaile bat lan jardunaren %20an. Ordutik eta abenduaren 31ra arteko jardunak aipagarrienak izan dira:

1.- Zerbitzuaren garapena eta barne koordinaziorako sisteman finkatzen hasi dira. Zentzu honetan, zerbitzuaren garapen eta inplementazio fasea jorratu da. Bergarako Udalak lehendik martxan zituen lan ildoak eta LORRATZ elkartearen bidez finkatu beharrekok definitu eta sistematizatzean oinarritu da. Zerbitzua nola inplementatu landu da. Inplementazioaren barruan, lanaren sistematizazioa eta barne koordinazioetan asko jorratu da. Honela barnen eragileekin koordinatzeko 16 lan saio eskaini izan dira.

2.- Lanaren erlazionatutako hainbat formakuntza saio ere egin dira, hala nola, maskulinitate eredu desberdinak, superbizioa, genero indarkeria, ...

3.- Detekzio eta prebentzio goiztiarra lantzen hasteko urratsak era finkatzen hasi da LORRATZ elkarteak. Zentzu honetan Bergarako hainbat ikastetxeri 5 formazio saio eskaini zaizkie.

4.- Honetaz gain kasuekin zuzenean lanean hasi dira hala nola, familia esku-hartzea familia hezitzaileekin, terapiak terapeutekin eta bazterkeria arriskuko kasuekin akonpainamendu zerbitzuak.

Aurrera begira, kanpoko eragileekin (osasun, ikastetxeak, aisialdia,...) koordinazioa prestatu da eta 2022 urtetik aurrera sakonduko da zentzu honetan.


Zerbitzua hau martxan jartzeak urriaren 6ko, 185/2015 DEKRETUAn, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, jaotako 1.3 zerbitzua martxan jartzea suposatu du.

Zerbitzuak babesgabetasun, adikzio eta bazterkeria egoeran aurkitzen diren herritarrei laguntzeko beste aukera bat ematen du, ikuspegi multidisziplinarretik kasuak bere osotasunean artatuz eta ditugun baliabideei etekin hobeago bat eskaintzeko aukera emanez.

Danera zerbitzu berrian eskaintako denbora 2.865,6 ordu izan da eta kostua

89.483,35 €.

PRESTAZIO EKONOMIKOA



PRESTAZIO EKONOMIKOA



ARLOAREN BALORAZIOA

Prestazio ekonomikoen arloak izandako gastu bilakaera jaitsi egin da aurreko urtearekiko konparatuz.

Kontutan eduki behar da Covid19ak eragindako itxialdiaren ondorengo urtea dela eta 2020 urtean herritarren oinarritzko premiei erantzuteko diru-laguntzak ugaritu egin behar izan zirela era berezi batean. Herritarren oinarritzko premiei erantzuteko gizarte larrialdietarako laguntzak (bai Jaurilaritza zein Udalak eskaintzen dituenak) urtero bezala ia bere osotasunean etxebizitzarekin erlazionatutako gastuei erantzuteko izaten dira (alokairuak, energia eta mantendu gastuak batez ere.) Hauek eskaera kopuruan igo egin dira, baina banatutako dirutan jaitsi.


Dirusarrera Bermatzeko Errentari (DBE) dagokionez, aurreko urtearekiko igo egin dira. Honela, Bergarar gehiagok jaso dituzte eguneroko oinarritzko premiei (elikadura, arropan, ...) erantzuteko laguntza. Aipatzekoa da, laguntza hauen osagarri gisa ematen den etxebizitza gastuetarako laguntzak ere igo egin direla. Laburbilduz, premia puntualei erantzuteko diru-laguntzak, etxebizitza lortu eta mantentzearekin erlazionatutako diru-laguntza egonkor gisa bilakatu dira.

Bestalde, aipatzekoa da 2020 eta 2021 urtetatik aurrera gizarte zerbitzuetatik egiten den lan bazterkeria arriskuan dauden pertsonekin gizarteratzeko lana egiteko. Zentzu honetan, 2021 urtean zerbitzu psikosozial eta psikohezitzaile zerbitzua kontratatu da bazterkeria, adikzioak eta babesgabetasun egoeran era pertsonalizatuan lantzeko. Zerbitzu honek aukera ematen digu banakako pertsonak eta taldeekin lan indibiduala egin eta euren egoera hobetzeko urratsak emateko. Aurrera begira ildo honetan sakontzea komeni da.



ATZERRITARRAK

ATZERRITARRAK




Espediente kopurua: 0

Gastua: 2.537,23 € (% 0,09a)


Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan

Espedienteen bilakaera



Atzerritarren arloan azken urteetan egindako gastuaren bilakaera

Gastuaren bilakaera




Iturria: Bergarako Udala

ATZERRITARRAK



ATZERRITARRAK



Itzulpen eta interprete zerbitzua

Zer da


Hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzten bi solaskidek elkar ulertzeko telefono bidezko aldi bereko interpretazio zerbitzua da, 51 hizkuntzatan erabiltzeko dago prestatua.

Zerbitzua Eudelen bitartez eskaintzen da eta doakoa da.

2021 urtean **9** pertsona atenditu dira zerbitzu honen bitartez, danera **151 minutu** erabili da zerbitzua.

Bergarako Udalak 2020 urtean esleituta zituen 6 pertsonen erabili zuten zerbitzua, 104 minutu erabili ditu.

Itzulpena hizkuntza hautatik egin zen (datua hizkuntza bakoitzarekin erabilitako minututan azaltzen da).



Arloaren balorazioa

Atzerritarrak/Migrazio arloa hankamotz dagoen arlo bat da.

Azken urteetan bilakaera oso urria eduki du eta zentzu honetan, arloarekin zer egin nahi den definitzea komeni da.



BESTE BATZUK




Espediente kopurua: 35 (% 2,00)

Generoa: Gizonezkoak % 53,33 eta emakumeak % 46,66


Gastua: 85.435,35 €. % (3,46a)

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedienteen banaketa

Laguntzak



Iturria: Bergarako Udala

BESTE BATZUK




BESTE BATZUK



Arlo honetan sartzen dira arlo berezi batekin zerikusirik ez duten eta departamendutik kudeatzen diren hainbat espediente, hala nola, estatistiketarako informazio eskaera, herriarren keak, beste erakunde batzuekiko elkarlana, ibiltariak, dutxa zerbitzua, etxe kale-ratzeak, e.a...

Beste batzuk arloaren gastu bilakaera



Iturria: Bergarako Udala

Dutxa zerbitzua

Zer da

Etxean dutxarik ez edo etxerik ez duten kasuentzat, garbiketa pertsonalerako ematen den zerbitzua da. Zerbitzu hau departamendu barruan lanean ari garen kasuentzat zein kasu puntualentzat da, hala nola, ibiltariak.

2021 urtean zerbitzu hau **2** erabiltzailek erabili dute.

Ibiltariak

Zer da

Etxebizitza gabe, joan-etorrian dabilzan ibiltariei urtean behin ogitarteko bat eta autobusez urrunen Donostia, Bilbo, Gasteiz edo Iruñera joateko txartel bat ematen zaie.

7 laguntza eman dira, 7-k gizonezkoak.

Etxebizitza kaleratzeak

Zer da

Etxe kaleratze baten aurrean epaitegitik informazioa helarazten digute egoeraren berri eman eta babesgabekotasun egoera bat emanez gero neurriak hartzeko eskaera egin.

Kasu hauetan, urgentiako prozeduraz, etxe kaleratze arriskuan dagoen pertsonari epaitegitik jasotako idatziaren berri ematen zaio eta gizarte zerbitzuetan hitzordu bat izateko aukera eskaintzen zaio egoera aztertu eta laguntzeko aukerarik izanez gero, beharrezko laguntzak eskaintzeko.

Epaitegira etxe kaleratze egoeran dagoen kasuari buruzko informazioa emanez txostena bidaltzen da.



BESTE BATZUK




2021 urtean 3 espediente zabaldu dira: gizonetza 1, emakumezko 1 eta beste bat ezezaguna (epaitegiak kasu bat dagoela aipatu du, baina ez du kasua identifikatzen).

2020 urtean 7 kasu eman ziren.

Aipatu behar da COVID19 pandemiaren ondorioz estatutako gobernuak ezarritako larrialdi egoeraren ondorioz etxe kaleratze prozesu guztiak gelditu egin zirela.

Larrialdi egoera emaitzen denean etxe kaleratzeen kasuen gorakada bat emango dela aurreikusten bazen ere, 2021 urtean ez da horren eraginik nabaritu.

Etxe kaleratzeak



Iturria: Bergarako Udala

**BESTE
BATZUK**



Beste batzuk

Zer da

Atal honetan sartzen dira sailkapen konkretu baten barruan sartzen ez diren espedienteak.

2021. urtean horrelako **17** espediente tramitatu dira.


BESTE BATZUK



PREBENTZIOA




PREBENTZIOA



Espediente kopurua: 12 (%0,69a)


Gastua; 162.485,58 € (6,58 %)

Espedienteen bilakaera azken urteetan



Iturria: Bergarako Udala

Espedienteen banaketa



Iturria: Bergarako Udala


PREBENTZIOA



PREBENTZIOA



Prebentzio arloaren gastu bilakaera



Iturria: Bergarako Udala

Prebentzioa familian

Zer da

Familia pertsonaren lehendabiziko sozializazio eremu naturala da. Bertan garatzen dira oinarritzko portaerak, jarrerak, baloreak,...Guzti horiek, jokabide arriskutsuak saihesteko izan daitezten Familiari eskaintzen diogun laguntza da.

Hain zuzen ere, informazio, formazio eta orientazioaren bidez, seme-alaben heziketarekin zerikusia duten gaiak jorratzeko guneak eta baliabideak sortzen ditugu.

* Formazio arloa

159 gurasoengana iritsi da. Kontuan hartuta LH, DBH eta DBHOn prebentziorako programetan egon diren 1.205 ikasleak, %13,20 gurasoengana iritsi gara. Kontuan izan da aurten ere COVIDak sortutako egoeraren menpe egon garela positiboki baloratzen da guraso guzti honengana iritsi ahal izana.

- Eskoletan lantzen diren prebentziorako programekin lotutako hitzaldiak. Hain zuzen ere, bizitzako trebetasunak prebentzioan duten garrantzien ingurukoa; alkohola, kannabisa edota drogen inguruko arriskuei buruzkoa; teknologia berrien eta internetaren erabilera arduratsu et aseguruaren ingurukoa; Heziketa afektibo-sexuala eta genero indarkeriaren ingurukoa.

* Orientazioa

Orientazioa antolatuta zegoen moduan 2020ko udan bertan behera geratu zen eta 2021an zehar esku-hartze psiko-hezitzailearekin hasi ginen. AGIPADen bitartez urtariletik ekainera bitartean hamabost egunero saio bat eskaini zen, guztira 10 saio.

PREBENTZIOA



PREBENTZIOA



Bi talde egon dira, bata 3-11urte bitarteko seme-alabak zituzten gurasoak eta bestea 12-18 urte bitarteko seme-alabak zituzten gurasoak. Guztira **14** guraso parte hartu zuten. Denak amak izan ziren.

Prebentzioa eskolan

Zer da

Eskolan Adikzioei aurre hartzeko ikasleei, irakasleei eta ikasleen gurasoei eskaintzen zaien informazioa, formazioa, aholkularitza eta baliabideak dira. Helburua gazteen garapen positiboa bultzatzea da, ongizate pertsonal eta soziala izateko beharrezkoak diren bizi ohitura osasungarriak, trebetasunak, jokaerak eta gaitasunak, landuz.

Horretarako Lehen Hezkuntzan, batez ere, modu ez zehatzean, bizitzarako trebetasunak lantzen dira; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Ondorengoan, berriz, modu zehatzean, droga legal zein legez kanpo daudenak lantzen dira, eta baita substantziarik gabeko adikzioak eta adikzio-jokabidek ere lantzen dira.

Hain zuzen ere, honako gaiak lantzen dira:

Bizitzako trebetasunen artean (autoestimua, norberari buruzko irudia, emozioen kudeaketa, eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna, gatazkak konpontzeko gaitasuna, pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzeko trebetasunak)

Drogen gaiari lotuta hauk lantzen dira (substantziak eurak: tabakoa, alkohola, kannabisa, eta bestelako legez kanpoko drogak; eta bestelako aspektuak: drogen kontsumoari lotutako arriskuak, talde eta gizarte presioa; drogen kontsumoaren pertzepzioa). Substantziarik gabeko adikzioak eta adikzio-jokabideekin lotuta (teknologia berriak, interneten erabilera).

Heziketa afektibo sexuala eta emakumeenganako indarkeriari aurre hartzeko programak.

		2016	2017	2018	2019	2020	2021
Erabilitako programa kopurua		8	8	8	7	8	8
Programa guztiei eskainitako denbora (orduak ikastetxeko bataz beste)		27	38	38	38	17	22
Gurasoei eskainitako saio kopurua		21	18	15	24	15	22
Izandako estaldura	Ikasleak	1.892	1.163	1.281	1.123	935	1.205
	Inplikaturako irakaleak	91	60	67	39	43	65
	Gurasoak	163	192	170	224	167	159
Programen balorazioa	Irakasleak	7,7	7,7	7,4	7,2	7,5	8
	Gurasoak	7,66	7,72	7,5	7,4	8,1	7,9
	Ikasleak	7,46	7,76	7,6	7,5	8,2	7,8

Aurten, aurreko ikasturteko programaz gain, aurreikusita zegoen lehen sorospeneko programa ere lantzea. COVIDak sortutako egoeraren ondorioz, 2 programa bakarrik landu dira osotasunean eta ikastetxe guztietan. Programa bat ezin izan da landu eta beste 4 programa ikastetxe baten edo 2tan bakarrik landu ahal izan dira. Horrek eragin du ikasle eta guraso gutxiagotara iritsi izana. Hala ere, egoera kontuan izan da positiboki baloratzen da iritsi garen pertsona guztiak eta beraiek programei eman dioten balorazio kontuan izan da.

Programako partaideen kopurua: 1.429 pertsona

Kostuari dagokionez, 36.275,20 € izan da

PREBENTZIOA



PREBENTZIOA



Jai eta aisialdi eremuko programa

Zer da

Jai eta aisialdi eremuan drogen-kontsumoari loturiko arriskuak murrizteko, informazioa eta aholkularitza eskaintzen zaie (arriskuak, ondorioak,...) eta, kasu batzuetan, hartu behar dituzten drogen analisiak egiteko aukera izaten dute osagaien inguruko informazioa jasotzeko. Guzti hori, batik bat, droga “ongi pasatzeko” hartzen dute gazteei bideratutakoa da, eta gazteak modu naturalean egoten diren lekuetan bertan egiten da, jaietan kalean bertan eta aisialdian gazteak biltzen diren lokaletan.

COVIDaren ondorioz, ez dira jairik antolatu ohizko moduan, bestalde gazteen lokalak itxita egon dira. Beraz ez ditugu esparru honetako esku-hartzeri egin.

Baina **eremu komunitarioari begira honako esku-hartzeak burutu dira:**

- Gazte-lekuan drogen kontsumoen arriskuen kudeaketen tailerra egin zen. Batez ere alkoholaren kontsumoaren inguruan aritu ziren, eta guztira 12-15 urteko (biak barne) 24 gaztek parte hartu zuten, bi taldetan banatuta: 1. Taldean 14 neskak parte hartu zuten eta 2. Taldean 10 (7 neska eta 3 mutil).
- Joko patologikoa eta ludopatiaren inguruko sentsibilizaziorako bi hitzaldi antolatu genituen. Covid-aren ondorioz sortutako hainbat egoerak erraztu eta areagotu egin du teknologia digitalaren eta berarekin lotutako aplikazio berrien erabilera, horren inguruan eratu daitezkeen portaera neurrigabeei aurre hartzeko helburuarekin antolatu genituen Arrasateko eta Bergarako udaleko prebentziotik. Hitzaldietan zuzenean parte hartzaileen kopurua oso txikia izan zen baiana eragin mediatiko handia izan zuen, GOIENA telebistan eta EUSKADI Irratian, hizlariekin egindako elkarrizketak esaterako.
- Alkoholaren eta gainerako drogen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko Udaltzainei zuzendutako formazioa. Guztira 15 udaltzainek jaso zuten formazioa.

Edari alkoholdunak eta tabakoa adin txikikoei saltzearen gaineko kontrola

Zer da

Edari alkoholdunak eta tabakoa saltzen dituzten establezimenduei adin txikikoei saltzeari buruzko araudiei inguruan informazioa ematen zaie, eta salaketa aurrean Tokiko poliziek ofizioz eskua hartzen dute.

Aurten ez da espedienterik ireki.

Drogen menpekotasunen inguruko aholkularitza

Zer da

Drogen inguruko informazio, orientazio eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen duen gunea da. Bertan, egoera aztertzeke eta baloratzeko laguntza eskaintzeaz gain, esku-hartzerako edo tratamendurako egon daitezkeen aukera eta baliabideen inguruko azalpenak ere ematen dira.

- Guztira **12 kontsultarekin** lan egin da. Horietatik 1 Emakumeak eta 11 gizonak. 4 alkoholaren arazoekin eta besteak drogekin. Gazteenak 16 urte eta zaharrenak 62.

PREBENTZIOA



PREBENTZIOA



Mendekotasun ezberdinen inguruko tratamendurako dirulaguntzak

Zer da

Mendekotasunen ezberdinen inguruko tratamendua egiten ari direnentzako dirulaguntzak dira. Diru laguntza horiek bidaiak eta lehen mailako beharrianak ordaintzeko dira.

ARTATUTAKO KASUAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	KOSTUA
1	0	1	104 €

Arloaren balorazioa

Prebentzio arloari dagokionez, laburpen orokor bat eginez, aurtan ere COVIDaren eraginpean izan gara, eta jaiak ohiko moduan antolatu gabe egon dira, hori dela eta, esparru horretan bultzatzen ziren esku-hartzeak ere ez dira burutu.

Egoera honek areagotu egin du teknologia digitalaren eta berarekin lotutako aplikazio berrien erabilera. Honi aurre egiteko sortu daitezkeen portaera neurrigabeei eta joku patologikoa eta ludopatiaren inguruko sentsibilizazio hitzaldiak burutu dira.

Arlo komunitarioan sakondu nahian, gaztelekuan prebentziorako tailerra eta udaltzainekin formazioa ekintza egin da.

BERDINTASUNA



BERDINTASUNA




Espediente kopurua: 40 (% 2,28)


Sexua: Sexua zehaztuta daukaten espedienteen % 97,5 emakumezkoena eta %2,5a gizonzkoena da.

Gastua: 107.067,62 (% 4,32)

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedienteen banaketa




Iturria: Bergarako Udala


BERDINTASUNA



BERDINTASUNA



Berdintasuna arloaren gastuaren bilakaera



Iturria: Bergarako Udala

BERDINTASUNA



BERDINTASUNA



Indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako laguntzak


1.go harrera edota akonpainamendua.

Zer da

Genero indarkeria jasaten ari den emakumeari 1.go harreta eta akonpainamendu zerbitzua.


2021 urtean **25 kasu berri** atenditu dira. Kasu hauetatik 1 indarkeria jasandako emakume baten adingabeko semea izan da.

Bestalde, erasotzaile 1 ere atenditu da.



Kasuen deskribapena faktore batzuren arabera

Adinari dagokionez



Iturria: Bergarako Udala


BERDINTASUNA



BERDINTASUNA




Adinen konparaketa 2017tik (2019ko daturik ez daukagu)



Iturria: Bergarako Udala

Jatorriari dagokionez, gehiengoa estatuko emakumea da.

Jatorria



Iturria: Bergarako Udala


BERDINTASUNA



BERDINTASUNA



Erasotzailearekiko harremana:



Iturria: Bergarako Udala

Emakume hauek erasotzailearekiko duten harremana kasu gehienetan bikote edota bikote ohiak dira.

Laguntza psikologikoa

Zer da

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatu eta finantziatzen duen laguntza da. Udaletik 1go balorazioa egiten da eta Foru Aldundira bideratzen da.

14 kasu jaso dute laguntza psikologikoa indarkeria matxistaren ondorioz.

- Hauetatik **5 kasu** izan dira berriak, 2021ean egindako eskaerak.
 - 4 genero indarkeria jasan duten emakumeak.
 - 1 genero indarkeria jasandako emakume baten adingabeko semea.
- Aurreitk jasotzen zebiltzanak:
 - 5 genero indarkeria jasan duten emakumeak.
 - 2 sexu indarkeria jasan duten emakumeak.
 - 2 genero indarkeria eragin duten gizon erasotzaileak.


BERDINTASUNA



BERDINTASUNA



Bilakaera azken urteetan



Iturria: Bergarako Udala

Aholkularitza juridikoa

Zer da

2021. urtean **3** bideratu ditu Foru Aldundiak duen aholkularitza juridiko zerbitzura.

Ostatua ematea

Zer da

Genero indarkeria kasuen ondorioz urgentziaz etxetik irten behar diren kasuentzako aldi baterako ostatua emateko baliabideak dira. Baliabide hauek Bergarako Udalaren Babes Etxea edota Foru Aldundiak dituen Urgentziazko Zentroak izan daitezke. Epe luze batetara begira, Eusko Jaurlaritzatik genero indarkeria biktimentzako Zuzeneko Esleipenerako Etxebizitza zerbitzurako deribazioa egiten da.

2021. urtean **KASU BAKARRA** egin eta onartu da urgentziazko Harrera zentrorako.

Genero indarkeriako kasuentzako diru-laguntzak

Zer da

Gizarte Laguntza hauen helburua biktimen eskura bizirauteko gutxieneko baliabide batzuk jartzea da, diru laguntza arruntak edota enplegu bat lortu arte haien erasotzaileengandik banantzeko aukera izan dezaten.

Diru-laguntza hauek 3 motakoak izan daitezke:

- Eusko Jaurlaritzako paga bakarreko diru laguntza. Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik egin behar da eskaera.

BERDINTASUNA



BERDINTASUNA



- Udalak urgentzia bezala planteatzen direnak. Salbuespenekoak dira, bestelako diru laguntza normalizatuak aktibatu bitartean oso oinarritzko beharretarako erabiliak.
- SEPEtik (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikotik) RAla (Renta Activa de Insercion). Eskaera ez da Udaletik bideratzen baina gizarte zerbitzuetatik bideratu beharreko informe eskaerak erantzuten dira.

2021 urtean zehazki, **3** diru laguntza eskaera egin dira, Eusko Jaurlaritzako paga bakarreko diru laguntza hain zuzen.

Gipuzkoako genero indarkeriaren Probintziako Batzordea

Zer da

2018ko uztailaren 25ean Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Batzorde Iraunkorrak emakumearen aurkako indarkeriaren Probintziako Koordinazio Batzordeak sortzea erabaki zuen, erakundeek genero-indarkeriaren biktimei eman beharreko erantzuna hobetearren eta genero-indarkeriaren aurkako borrokan erantzule diren agintari eta erakundeen arteko koordinaziorako. Bergaran epaitegia dagoenez solaskide bat izendatzea eskatu zen eta indarkeria jasaten duten emakumeak atenditzen dituen Gizarte teknikaria joatea erabaki zen. Horrela, 2021an egindako 3 bileratan parte hartu zen.

Arloaren balorazioa

Indarkeria matxistaren eragina ez da desagertzen gure gizartean. Honela, Bergarako gizarte zerbitzuetan indarkeria matxistarekin erlazionatutako kasuak igo egin dira eta azken 7 urtetako kopururik handiena jaso da. Bestalde, indarkeria jaso duten emakumeen adina kezkatzekoa da, izan ere, artatutako emakumeen %75a, 21 – 50 urte artekoa da. Jatorrian, estatutako jatorria duten emakumeak gehiago dira indarkeria matxistaren eragina jasan dutenak eta kasu gehienetan bikote ingurunetik (bikotea edo bikote ohiak) eratorri dira kasuak. Aurrera begira indarkeria matxista kasuan azaleratzeko baliabideak sortu behar dira indarkeria honen biktimak diren pertsonak salaketak jarri eta egoera hauetatik irteteko laguntza osoak eduki ditzaten.

Berdintasun plana

Zer da

2018ko azaroaren 26ko Osoko Bilkuran onartu da Bergarako Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako II. Plana. Horretarako, I. Planaren (2010-2013) ebaluazioa eta herritarren errealitatea hartu dira oinarri.

II. Plana 2018-2021 urteetan egongo da indarraldian, eta lan-ildo nagusiak honako hauek dira:

- 1- Gobernantza
- 2- Emakumeen partehartze soziopolitiko eta ekonomikoa
- 3- Autonomia eta norberaren boterea
- 4- Jaiak eta kultura ez sexista
- 5- Osasuna eta kirola
- 6- Zaintza erantzunkidea
- 7- Indarkeria matxistatik gabeko herria

Ildo horietako bakoitzak, hainbat helburu ditu, ekintza zehatzen bitartez gauzatu nahi direnak.

2021. urtean nabarmendu behar da Berdintasun teknikaria kontratatzeko prozesua abian jarri dela. Hala ere, oposaketa-prozesuak iraun bitartean, azpikontratazio bidez eskaini da Berdintasun Zerbitzua Bergarako Udalean, jardunaldi erdiz. Azpikontrataturako teknikari aldaketa ere egon da martxoaren erdialdetik aurrera. Bestalde, abuztuan ez da zerbitzurik eskaini.

Hala ere, **Udal barruan lortutako helburuak** egon dira:

- Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun zerbitzuko arduradunak elkarlanean **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan langileek jasandako eraso sexista eta sexualen aurrean jarduteko protokoloa osatu dute. Gizarte Zerbitzuetako arduradunari** eta arduradun politikoei helarazi zaie protokoloa, ikuspuntu teknikitik erabaki ezin direnak osatzeko. Gaur egun puntu horiek argitzeke daude. Hurrengo fasea protokoloaren onarpena izango litzateke.

BERDINTASUNA



BERDINTASUNA



- Erailketa eta eraso matxista kasuetarako **udal erantzunaren protokoloa** berrikusten hasi dira Gizarte Zerbitzuetako teknikaria, komunikazio arduraduna, Berdintasun zerbitzuaren arduraduna eta berdintasunerako arduradun politikoa.
- Eraso LGTBIfobiko eta matxisten kontrako **seinaleak** egin dira, herriko errepidezko hiru sarreretan jartzeko (oraindik ez dira jarri).
- Berdintasun Zerbitzuak gainontzeko Udal sailekin zein herriko hezkuntza eragileekin duen koordinazioa areagotzen doa. Nabarmendu behar da udal sailek aholkularitza eskatu izan dutela egoera batzuetan euren proiektuetan genero ikuspegia txertatzeko. Esate baterako, aurtengo **kirol argazki lehiaketaren** gaia “emakumeak kirolean” izan da, sari berezia egon da lehenengo emakumearentzat eta epaimahaiaren osaera orekatua bermatu da. Hala ere, udal sailen arteko harremanak era antolatuan eta jarraitasunez egiteko denbora falta nabarmena da, zerbitzuak jardunaldi erdikoak izaten jarraitu duelako. - Bergarako Udalaren antolaketa-sisteman, Herritarren arloko taldean jarraitu du Berdintasun Zerbitzuak. Horrek udal ekimenetan genero ikuspegia txertatzeko aukera eskaintzen du. Esate baterako, Udalak artatutako indarkeria matxista kasuak sei hilabete behin aurkezten dira espazio horretan. Hala ere, koordinazioa Herritarren arloarekin egiten da batez ere, Lurraldetasun eta Antolaketa arloek beste bilera batzuetan egiten baitute euren lanketa.
- Bergarako Udalaren antolaketa-sisteman, Herritarren arloko taldean jarraitu du Berdintasun Zerbitzuak. Horrek udal ekimenetan genero ikuspegia txertatzeko aukera eskaintzen du. Esate baterako, Udalak artatutako **indarkeria matxista kasuak** sei hilabete behin aurkezten dira espazio horretan. Hala ere, koordinazioa Herritarren arloarekin egiten da batez ere, Lurraldetasun eta Antolaketa arloek beste bilera batzuetan egiten baitute euren lanketa.
- Bergarako Udaleko **langileentzat berdintasunarekin lotutako oinarrizko formazioa** eskaini da 2020 urtearen amaieran eta 2021 urtearen hasieran. Formakuntzak 4 orduko iraupena

izan du talde bakoitzeko. Guztira, 91 langilek parte hartu zuten. Gainera, Udaltzainei zuzenduriko berdintasuneko formakuntza espezifikoa antolatu da.

- 2021ean ere berdintasuna landu nahi duten herriko **elkarteentzat dirulaguntzak** eman ditu Bergarako Udalak. LHL Lanbide Heziketaren Lagunak elkarteari eman zaio dirulaguntza.
- **Berdintasun Kontseilua** indartuz joan da aurten ere. Kontseiluan parte hartzen dute, besteak beste, herriko ikastetxeen ordezkariak, pentsionisten ordezkariak, euskara elkarteak, Martxanterak talde feministak, etab. Kanpainetarako (martxoak 8, azaroak 25) koordinazio gune bihurtu da, baita hausnarketarako eta lanketarako espazioa ere.
- 2019an hasita, urtero berdintasunarekin lotutako diagnostiko edo plan bat egiteko helburua dauka Bergarako Udalak. 2021ean, II. Berdintasun Planaren indarraldia bukatzen denez, II. Plana ebaluatzeko eta **III. Plana diseinatzeko prozesua** jarri da martxan. Horretarako Hezi2de Berdintasun Aholkularitza kontratatu da eta proiektuaren %75a Emakunde emandako dirulaguntzarekin finantzatu da. Bergarako III. Berdintasun Planak hurrengo lau urteetako indarraldia izango du (2022-2025).

Herrira begirako ekimenen inguruan, ssentsibilizazio kanpainak egin dira martxoaren 8an, maiatzaren 17an eta azaroaren 25ean.

Martxoaren 8ko egitarauaren baitan hainbat ekintza antolatu dira:

- Herriko ikastetxeetan koordinatutako hainbat ekintza antolatu dira, esate baterako, “emotikono erronka” edo Bergarako emakumeen letra zopa. Ikasleek emakume erreferenteen izenak asmatzea izan da helburua. Emakume zientzialarien inguruko lanketa ere egin dute ikastetxe batzuetan. Ikastetxeetako ordezkariak nabarmendu dute ekintzak aurrera ateratzeko lan handia egin dutela, COVID egoera dela eta.
- Urtero moduan, herriko hainbat emakume artistek erakusketa antolatu dute Aroztegin.

BERDINTASUNA



BERDINTASUNA



Aurtengo gaia “Edertasuna emakumearen bi ikuspuntuetatik” izan da. Ikusgai egon da martxoaren 5etik 21era.

- Duintasuna emakume pentsiodunen elkarteak astelehenetako kontzentrazioa gaiarekin lotuta egin du. Gainera, bi emakume pentsionista omendu dituzte, euren konpromisoa balioan jarritz.
- Kultura sailak kontzertua, zinekluba, zinea eta antzezlan antolatu ditu.
- “30 emakume ahaztezin” erakusketa (emakumeek egindako lanak ikusarazten dituen) ikusgai egon da Laboratoriumen martxoaren 4tik maiatzaren 30era arte.

Maiatzaren 17a: 2020an erabaki zen LGTBI+ gaiarekin lotutako ekintza partehartzaileak maiatzaren 17aren inguruan antolatzea, ekainaren 28an beharrean, azken data hau uda-garaiarekin lotzen duelako jendeak, eta beraz, ez duelako ekintzetara joan nahi. Aurtun “Transformatzen” dokumentalaren emanaldia antolatu da maiatzaren 27an, Seminarixoan. HiKi-ru taldeak ekoiztutako transexualitatearen inguruko film dokumentala da eta Naizen elkarteko familien testigantzak jasotzen ditu, besteak beste. Solasaldia egon da ondoren, Naizen elkarteko kideekin.

LGBTIfobiaren aurkako eguna ardatz hartuta, Gune Anitza zigilua Bergarako espazioetara zabaltzeko beste deialdi bat egin da. Bergarako Udalak 2019an eman zion babesa ekimenari eta herriko 33 espazio atxikitu ziren. Ikastetxeekin harremanetan jarri da



MARTXOAK 8

SEMINARIKOAN
MARTXOAK 5 ETA 7, 18:30EAN
MARTXOAK 8, 19:00ETAN
ZINEA: "Marie Curie"

MARTXOAK 6, 19:00ETAN
ANTZEZLANA / TEATRO: "Yo nunca"

MARTXOAK 10, 18:30EAN
ZINEKLUBA: "Never Rarely Sometimes Always"

MARTXOAK 12, 19:00ETAN
KONTZERTUA: "The Mond Rings"
(ofizial: www.bergarapunk.org)

MARTXOAK 8
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
12:00ETAN
Duintasuna indarrean kontzentrazioa
Udaltzaurrean

EMAKUMEEN EGUNA LANAK IKUSARAZTEKO
ERAKUNTZEAN / EXPERIMENTOS QUE VISIBILIZAN TUA
BAJO LOS ROSTROS POR MUJERES.


MARTXOAREN 4TIK MAIATZAREN 30ERA
(LABORATORIUMEN)
30 emakume ahaztezin / 30 mujeres invisibilizadas
(ofizial: Laboratorium 043767844)

MARTXOAREN 5ETIK 21ERA (ARAZTEGIN)
HERRIKO EMAKUME ARTISTAK:
Edertasuna emakumearen bi ikuspuntuetatik /
La belleza desde las dos perspectivas de la mujer.

BERGARA
UDALA

BERGARA
IZAN, BIZI, EKIN

BERGARA
UDALA



DOKUMENTALA

**TRANS
FORMATZEN**

ELIZEN
KULTURAREN KONTZERTUA / KULTURAREN KONTZERTUA
MARTXOAREN 17AN / MARTXOAREN 17AN
19:00ETAN / 19:00ETAN
NAIZEN ELKARTEN KIDEAKIN SOLASALDIA
Aterea libre aratza bete arte

naizen

Bergarako
Udala

Berdintasun zerbitzua eta hiru ikastetxek zigilua jarri dute eraikinetako sarreretan. Bestalde, 40 denda eta ostalaritza gunek eman dute izena zigilua eskuratzeko.

Azaroaren 25aren inguruan egitaraua osatu da:

- Azaroaren 19an eta 20an "Memoria Eraikiz" zentzumen-ikuskizuna antolatu da Seminarioko patioan. Ekainean zen egitekoa baina bertan behera geratu zen eguraldiagatik. Mugarik Gabe GKEak sustatutako proiektua da eta indarkeria matxista jasan duten eta bizirik dirauten emakumeen testigantzak jasotzen ditu. Paseak ostiral goizean eta arratsaldean eta larunbat goizean antolatu dira eta ostiral goizeko paseetara batxiler-goko ikasleak joan dira.



AZAROAK 25
INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK 19 – 20
Azaroak 19: 16:00
Azaroak 20: 12:00, 13:00 eta 14:00
Seminarioko patioa
Doan

MEMORIA ERAIKIZ IKUSKIZUNA
Aurrez izena emateko/inscripción previa:
berdintasuna@bergara.eus / 943779100

AZAROAK 22
12:00 San Martín Plaza
DUINTASUNA ELKARTEAREN
KONTZENTRAZIOA EMAKUME
HELDUENGANAKO
INDARKERIAREN KONTRA /
CONCENTRACIÓN DE LA ASOCIACIÓN
DUINTASUNA CONTRA LA VIOLENCIA
HACIA LAS MUJERES MAYORES
Ohiko elkarretaratzea eta irakurketa berezia

AZAROAK 25
19:00 San Martín Plaza
INDARKERIA MATXISTAREN
KONTRAKO EGUNA
Martxanterak Talde Feministak
antolatuta, Kale Ekintza



Memoria eraikiz
www.mugarikgabe.org
www.mugarikgabe.org/indarkeriamatxistak

BERGARA
Seminarioko patioa
AZAROAK 19, 20
Indarkeria matxistaren biktima izan eta
bizirik dirauten emakumeen ahotsak
jasotzen dituen ikuskizuna

Ordutegia:
Ostiralean: 16:00etan
Ostiral goizeko emanaldiak ikastetxetzat izango dira
Larunbatean: 12:00 – 13:00 – 14:00

Izena emateko **DOAN** berdintasuna@bergara.eus // 943.779.100
Egunon bertan ere eman ahalik da izena bertara gerturatuta

BERDINTASUNA



BERDINTASUNA



- Duintasuna elkarteak emakume helduenganako indarkeriaren kontra kontzentrazioa antolatu du. Astelehenetako ohiko elkarretaratzea izan da eta irakurketa berezia egin dute.
- Martxanterak talde feministak kale ekintza egin du azaroaren 25ean bertan, San Martin Plazan.
- Bergarako ikastetxeen artean ekintza bateratua antolatu da, Udaleko Berdintasun zerbitzuak koordinatua. Lehen Hezkuntzako ikasleek hainbat irudi aurkeztu dituzte egunarekin lotuta, eta DBH eta Batxilergoko ikasleek leloak. Logo eta lelo irabazlearekin txapak egin dira eta ikastetxeetan banatu dira.

Berdintasuna, gizartearen osasuna



Ondoren **bideoa** osatu da ikastetxeetan ateratako argazkiekin. Hemen dago ikusgai: <https://es-es.facebook.com/bergarakoudala/videos/323751209599621/>
Aipatutako kanpainez gain, beste hainbat ekintza egin dira herritarren berdintasunarekiko sentsibilizazioa, eraso matxisten kontrako lanketa eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko.

Ikastetxeetan **indarkeria matxistaren prebentziorako saioak** egin dira, Lahia 3.0 elkartearen eskutik. Saioen balorazioa ona izan da. DBH1, DBH2, DBH3, DBH4, Batxilergoko 1. Mailako eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako saioak izan dira. Egitasmo hau finantzatzeko 2020-2021 urteetarako Gipuzkoako Foru Aldundiak Bergarako Udalari emandako dirulaguntza erabili da.

San Martin (ez)-jaietarako erasoen aurkako kanpaina egin da. Herriko paneletan jarri dira kartelak eta sare sozialetan zabaldu dira:

Emakumeentzat **jabekuntza eskolako ikastaroak** antolatu dira. 2020an lehen aldiz programatu zen *Nire barneko haurra* ikastaroa berriro antolatu da, arrakasta handia izan baitzuen (izena eman zuten emakume kopuruagatik itxaron zerrenda luzea geratu zen). Bi asteburutan antolatu da ikastaroa: apirilaren 17an eta 18an eta ekainaren 19an eta 20an.

Bestalde, abenduan beste ikastaro bat antolatu da jabekuntza eskolaren baitan: *Amatasun praktika bizigarriagoak*, Ainara Gorostizuren eskutik. Ikastaro hori 2021eko abendua-2022ko urtarrila programazioaren barruan antolatu da.



BERDINTASUNA



BERDINTASUNA



laz bezala, aurten ere **ZTB jardunaldien baitan LHL elkarteak** (Udalaren berdintasuneko dirulaguntza baliatuz) Scape Room teknologikoa antolatu du, neskak zientzia eta teknologietara gerturatzeko egiten ari diren lanaren barruan. Ekimen arrakastatsua izan da, 10 eta 12 urte bitarteko ikasle ugarik hartu baitute parte, eta esperientzia oso positiboa izan dela nabarmendu dute.

Bestalde, 2020ko dirulaguntzak erabiliz, UNEDek hainbat ekitaldi antolatu ditu 2021ean zehar (COVID egoera zela eta ekintzak gauzatzeko epea luzatu zuten). Martxotik ekainera bitartean online ikastaro bat, bi tailer presentzial eta 3 hitzaldi eskaini dituzte, berdintasunarekin eta indarkeria matxistaren prebentzioarekin lotuta.

Arloaren balorazioa

BUKAERAKO BALORAZIOA: BERDINTASUN ZERBITZUA

- Berdintasun zerbitzuaren lanak bilakaera positiboa izan du. Urteko ekimen nagusiak mantendu dira, baita proiektu esanguratsuak aurrera atera ere.
- Indarguneak azpimarratzeko, aipatu behar da hainbat ekimen eta kanpaina lankidetzan burutu direla eragile publiko eta pribatuen artean. Hauen artean, aipatzekoa da, kontseiluko kideek egindako ekarpenak herrian Berdintasun arloa bultzatzeko.
- Bestalde, orain arte Berdintasun arloaren lanketa udaletxetik ahuldade egoeran egon da, izan ere, zerbitzua azpikontrataturako enpresa baten bidez eskaini da eta dedikazioa lan jardun erdikoa izan da. Egoera honi erantzun eta Berdintasun

arloari entitate propioa eman nahian, Bergarako Udalak 2021 urtean martxan jarri du Berdintasuna teknikaria lan jardun osoan kontratatzeko prozesua. Prozesua 2022 urtean amaituko da.

- Kontratazio honek aurreikusitako proiektuak (besteak beste, III. Berdintasun Planean jasotakoak) aurrera ateratzeko aukera emango du eta herriko talde feministarekin elkarlanean aritzea ahalbidetu dezake.

Kostu totala: 74.352,09 €

(*) Gastu honetan sartzen dira ekintzetan gastatutako dirua eta berdintasun zerbitzuaren aholkularitza zerbitzuaren kontratazioa

BERDINTASUNA





ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA




ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA




Espediente kopurua: 76 (% 4,34a)

Gastua: 550.780,32 €, (% 20,30)

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan.



Espedienteen banaketa



Iturria: Bergarako Udala


ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



Enplegua eta garapen ekonomiko arloaren gastuaren bilakaera



Iturria: Bergarako Udala

Laneratze formazio ikastaroak

Zer da

Lanik gabe dauden 18 urtetik gorakoentzat, prestakuntza egoki bat lortu dezaten, Ikastaroak eskaini dira Mankomunitateko Garapen Agentziarekin lankidetzan.

Aurtengoan Covid-19aren eraginez, zailtasunak izan dira eta eskaintzak atzeratu dira. Dene den, partaidetza modu telematikoan ziurtatu da.

- Ekin Debagoiengan, ekintzaileei zuzendutakoak.
- HAZILAN, goi mailako ikasketak amaitu berri duten ikasleei zuzendutakoa.

Guztira Bergarako 7 ikasle izan dira bertan, 1 gizon eta 6 emakume.

Ekintzailetasuna: Enpresa-Negozioak

Zer da

Negozio-Enpresa bat martxan jartzeko asmoa azaltzen duten herritarrei, ekintzailetasun, aholkularitza zerbitzua ematen zaie.

Negozio-Enpresa ideiarekin bideragarritasun plana egiteko eta hasierako pausoak, ideia negozio bihurtzeko, laguntza eskaintzen da, baita prestakuntza ere Debagoieneko Garapen Agentziarekin lankidetzan: Ekin Debagoiengan.

Negozioak martxan jartzeko asmoarekin, aurtengoan jaitsiera handia nabaritu da, Covid-19aren ondorioz. **2021. urtean 4 ekimen berriren** bideragarritasun ekonomikoaren azterketa egiteko aholkularitza zerbitzua eman da.


ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



Ekintzailetasuna: Enpresa-negozioak



Iturria: Bergarako Udala

Aurkeztutako kontsultetako partaideen banaketa sexuaren arabera: 1 emakume eta 3 gizon.

Bideragarritasun plana amaitu ondoren, martxan jartzen diran enpresei, lokalaren alokairurako 2 urtetarako diru-laguntza ematen zaie.

Beraz, 2021ean, 4 enpresek aholkularitza zerbitzua jaso zuten eta **hauetatik 4 enpresek**, ondoren lokalaren alokairurako diru-laguntza eskatu zuten.

Aztertutako negozio motak hauek izan dira:

- Ileapaindegia
- Harategia
- Produktu biologikoen salmenta
- Elektrotresnen konponketa

Argitaratzen diran **ekintzaileei zuzendutako** informazio eta diru-laguntzen berri, Udal webgunean www.bergara.eus eta sare sozialetan argitaratzen dira.

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



Orientazio zerbitzua

Zer da

Memoriako datuak baloratzera kontutan izan behar dugu Udalak Orientazio zerbitzu propioa izan zuela 2016. urterarte, eta ondoren, 2017tik aurrera zerbitzua kudeatzeko sisteman aldaketak izan ziren. Aurrez, Bergarako Udalak, urtero Lanbide zerbitzuarekin lankidetzaz zuzena izaten zuen. Gaur egun, Lanbidetik haratago doa langabezia egoeran dauden herritarrek jasotzen ari diren orientazio zerbitzua.

Alde batetik, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez kudeatzen den arloa eta bestalde, Enplegu Orientazio zerbitzu orokorra, urte guztian zehar, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako Orientazio Teknikariaren bidez.

Ondorengo taulan, azken urteetako zerbitzuaren bilakaera, azaltzen da. 2021ean zehar, GUZTIRA: 245 pertsona artatu dira Orientazio zerbitzuan.


Zerbitzu honetan ere, Covid-19aren eragina nabarmena izan da, nahiz eta baliabide telematikoaren bidez ere eskaini.

Ondorengo taulan zerbitzuaren bilakaera azken urteetan azaltzen da.

2021ean zehar, GUZTIRA: 245 pertsona artatu dira Orientazio zerbitzuan.

Zerbitzu honetan ere, Covid-19aren eragina nabarmena izan da, nahiz eta baliabide telematikoaren bidez ere eskaini.

DANERA	EMAKUMEAK	GIZONAK
245	148	97



Iturria: Bergarako Udala

Bergarako Udalak eskaintzen duen orientazio zerbitzua LANBIDE Euskal Enplegu zerbitzuak finkatutako antolaketa eta funtzionamendu ereduarekin zuzenean erlazionaturik dago. Honela, LANBIDE-k Bergarako Udalarekin zerbitzuaren eskaintza urtero hitzartu edo ez hitzartzeak eragin zuzena du eskaintzen den zerbitzuan.

Grafikan adierazten diren datu dantzak Bergarako Udala – LANBIDE arteko hitzarmena eta hauen iraunaldiaren ondorio dira. Zerbitzu antolaketa berri honetan jasotzen den Orientazio ekintzetan, ondorengo hauek barne hartzen dira:

- Enplegarritasunaren balorazioa.
- Gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuaren diseinua eta jarraipena.
- Formakuntza.
- CV eta Aurkezpen gutunak.

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



- Elkarriketa.
- Informazio profesionala.
- Orientazio orokorra.

2021ean zehar, Debagoieneko Mankomunitatearen bidez kudeatu da zerbitua, LANBIDE euskal enplegu zerbitzuarekin horrela hitzartuta. Hori horrela, Lanbide Orientazio teknikariak Bergarako B@Z bulegoan zerbitzua eskaintzen du, astean bi egunetan.

Lan bila ari diren zerbitzuko bezeroei, **LAN eta FORMAZIO ESKAINTZAK** egunero bideratzen zaie emailaz horretarako aurrez, beraien korreoa ematen dute (159 helbide inguru).

Aldi berean, egunero argitaratzen dira baita ere udal webgunean www.bergara.eus, eta udal Liburutegian ere interesatuen eskura daude.

2021eko irailaren 1etik aurrera, ordurarte astean hiru egunetan zerbitzua Udaletxean eskaintzen zena, astean bi egunetan Udaletxean eskaini da eta astean behin Miguel Altuna Institutuan eskaintzen hasi da, eskolaren eskariari jarraituz. 2021ean baloratuko da emaitza.

Enplegu plana

Zer da

- LANBIDE zerbitzuaren dirulaguntzaren bidez, Udaletik argitaratzen den lan eskaintza publikoak.
- Aldi baterako, 6 pertsona kontratatu dira Udal zerbitzutan lanean jarduteko:
 - Gizarte langilea.
 - Gizarte Zerbitzuko Administrari laguntzailea.
 - Laboratorium Museoko Administrari laguntzailea.
 - Mantenuko langilea.
 - Kale garbitzaileak 2.

Lan eta formazio eskaintzen informazioa

Zer da

Egunero argitaratzen den Enplegu publiko, pribatu eta formazio eskaintzen informazioa Udal webgunera, Udal liburutegira eta izena eman duten interesatuei beraien helbide elektronikoetara, bideratzen da, 159 hartzaile inguru izan dira 2021ean.

Garapen ekonomikorako ekimenak

Zer da

Etorkizuna eraikitzeko ibilbidean aurrera egiten, garapen ekonomikorako ekimen desberdinak lantzen dira, herriaren ongizatea, garapena eta lehiakortasun ekonomikoa eta soziala bultzatu nahian.

Ondoren zehazten dira 2021ean landutako arloak:

1. Merkataritza indartzeko plana.
2. Ostalaritzarekin lankidetzak.
3. Oxirondo Azokaren dinamizazioa.
4. Enpresekin lankidetzak.
5. ZTB Zientzia Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak.
6. EKINOLA – Ekintzailetasun Jardunaldiak.
7. EHUNDUrekin lankidetzak – Eraldaketa Sozialaren inguruan Etorkizuna Eraikiz.

1. Merkataritza indartzeko plana: MSPB - PERCO

Zer da

Merkataritza Suspertu eta indarberritzeko Plan Berezia da, udalerriko merkataritza sektore gisa eta espazioan antolatzeke neurri eta jarduerak biltzen dituena.

Dokumentuaren muina merkataritzaren eta herritarren erosketak – ohituren azterketa

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



da. Planak berarekin dakar bide publikoan obrak egitea merkataritza sektorearen kokapena erakargarria izan dadin eta Udalerrri barruko mugikortasuna errazteko helburuekin.

2020an PERCO azterketa berria bideratu da eta Bergaran garatzeko egindako ikerketan jasotakoa:

- Egoeraren diagnosia.
- Eskaria eta eskaintzaren analista.
- Esku – hartze plana.

Aurreikusitako ekintzak aurrera eramateko eta Herriko merkataritza sektorea biziberritzeko, 2013. urtean **BERGARA BIZI** egitasmoa abian jarri zuen Udalak, Bergarako merkatariekin orokorrean eta Bedelkar elkartearekin lankidetzan.

Bereziki, formazio, dinamizazio eta sentsibilizazio arloak bultzatzen dira egitasmo honen bidez.

2021ean zehar, **BERGARA BIZI** lan taldearen egitasmoa COVID-19aren eraginez, oso mugatua ikusi da baina aldi berean, egoerari esker, erronka berri bat azaleratu da, DIGITALIZAZIOAREN beharra.

Hori horrela, Udalak Bedelkarrekin lankidetzan hainbat ekimen kudeatu ditu. Formazio, dinamizazio eta sentsibilizazio ekintzak antolatu eta aurrera eraman dira urte guztian zehar.

Horretarako 2021ean, **15 lankidetzatza bilera** egin dira.

Ekimenak honako hauek izan dira:

- Bergara Bizi lan taldearen ordezkartza aldaketa eta egokitze prozesua.
- Bergara Bizi ekimenaren 2021. urteko kudeaketa plana zehaztu.
- Merkatariei zuzendutako informazio eta aholkularitza Dendartean elkartearen bidez.
- Merkatariei zuzendutako covidaren eraginez, egoeraren berri eta laguntzen informazio eta webinar zerbitzua: Herriko komertzioetara bideratuta (210

- helbidetara emailaz eta whatsappaz (90)).
- “Bergaran Bizi, Herrian erosi, Denok irabazi” Ihauterietako Sentsibilizazio kanpaina.
 - Bedelkarrek Termoen sentsibilizazio kanpaina.
 - “Kaleak argitzen” dokumentalaren aurkezpena Seminarixoan.
 - Betikoa Gertukoa sentsibilizazio kanpaina.
 - Martxoak 8ko kanpaina, berdintasun zerbitzuarekin bat eginez.
 - Bedelkar bloga eta sare sozialen kudeatzaile berria.
 - MEC- Eusko Jaurlaritzako dirulaguntzen tramitazioa: 2 eskari.
 - TicketBAI aplikatiboaren Formazioa Gipuzkoako Bazkundearekin lankidetzan : 3 saio.
 - Auken Azokak: Otsailean, Ekainean, Uztailan eta Irailean.
 - HIRIGUNE laguntzaren bidez, MSPB – PERCO berriaren egitekoak zehaztu.
 - San Martinetako FERIA herriko merkatariekin.
 - Covid dirulaguntza Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, 3 establezimenduk jaso dute 2.100 €
 - Herrian kontsumoa sustatzeko Azaro-Abendu bitartean Bergara Bonoak erosketa kanpaina 47 establezimenduk parte hartu dute eta Udalak **30.000 €** bideratu ditu. Ondoren, herrian sustatutako gutxieneko kontsumoa **150.000 €** , kontutan izanda, Udalak herritar bakoitzari gastu ticketaren %20 luzatzen ziola eta gehienez 75 €.
 - Gabonetako kanpaina berezia: Erakusleho lehiaketa, Apainketa, Ohe elastikoak eta zozketak.
 - Bergarako Udalak sariak banatzeko erosketa bonoak erabiltzen ditu, herriko komertzio eta ostalaritza zerbitzutan kontsumitzeko, 2021ean **14.000 €** banatu zituen.

BEDELKAR elkarteari, **12.000 €** diru-laguntza eman dio Udalak urteko dinamizazio ekintzak bideratzeko.

2021ean Eusko Jaurlaritzak ez du HIRIGUNE, obretarako dirulaguntzarik argitaratu.

Merkataritzara Bergarako Udalak bideratuko dirua: 58.100 €


ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



Bergarako Udalaren ekarpena merkataritza bultzatzeko



Iturria: Bergarako Udala

Covid dela eta 2020 urtean berezia izan zen merkataritza arloarentzat. Merkataritza urteko epe luze batean itxita egon zen eta honek Udalaren aldetik esfortsu berezia eskatu zuen merkataritza bizirik mantentzeko. 2021 urtean, itxiera egoera amaitzean, Udalaren laguntza egoera berrira egoki da eta beharren arabera laguntzak egokitu dira. Merkataritza arloari buruzko informazio gehiago, www.bedelkar.eus

2. Ostalaritzarekin lankidetza

Zer da

Udalak, tabernen eta jatetxeen ardura eta premiak zuzenean ezagutzeko, irtenbideak adostu elkarlaneko aukerak aztertuz, merkatariekin hasitako BERGARA BIZI ibilbidea, ostalariekin ere aurrera eramaten jarraitu da, 2021ean bereziki covidaren eraginez sortutako itxiera eta neurri murriztaileei aurre egiteko.

Aurtengoan, terrazen kokapenerako egokitzapen lanak egin dira, kokapenak neurtuz eta bezeroen segurtasun neurriak zainduz eta betearaziz.

Hori dela eta, herriko ostalari guztiek deitu ziren bileretara kaleka eta auzoka antolatuz terrazen antolamendu berriaren inguruko informazioa eta planoak emateko.

Guztira 9 bilera izan ditugu eta beraien nahia bideratu du Udalak:

Lur zoru publikoaren erabilerarako **ORDENANTZA** berria prestatzeko ibilbidea: Hiritik At enpresaren laguntzarekin, Herritar, merkataria eta ostalarien prozesu partehartzailearen bidez lanketa egin da eta 2022ean prest izatea aurreikusi da.

Bestalde, 2021ean 47 ostalaritza zerbitzuko eman zuten izena Bedelkar merkataria eta ostalarien elkarteko bazkide gisa.

Ondoren, ostalarien ordezkari taldea Bedelkar eta Bergara Biziko bileratan parte hartzen ari dira.

Terrazen eta zaborren tasatan, gutxienez **100.137 €** tako hobariak izan dituzte ostalariek, 2021ean zehar ere tasak ordaindu beharrik ez dutelako izan.

Dirulaguntzak:

- Guztira **3** ostalaritza zerbitzuko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan inbertsioetarako **1.200 euroko** dirulaguntza jaso dute.
- Udalak Berraktibazioarako luzatutako dirulaguntzak: **48** establezimenduk **35.300 €** jaso dituzte.

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



Informazioa:

Covidaren eraginez, egoeraren berri eta laguntzen informazio zerbitzua: Herriko ostalaritza sektoreari bideratutako informazioa: (65 helbidetara emailaz eta whatsapppe 45).

Sentsibilizazio kanpaina: Bergarako Udalak, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearekin elkarlanean, *BERTATIK BERTARA* kanpaina antolatu du, ostalaritzan eta turismoan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz.

**Ostalaritzari laguntzeko Udalak inbertitutako dirua
(hobariak+laguntza zuzenak): 136.637 €**

3. OXIRONDO AZOKAren dinamizazioa Zer da

Eguaztenero azoka berezia egiten da, aurrez, lehen eguaztenetan egindako Azokan parte hartzen zuten postu guztietako **arduradunen datuak, produktuak** eta eguaztenero Azokara etortzeko **disposizioari** buruz informazioa jaso zen. Landu beharreko ekimenak zehaztu ziran eta 2021ean aurrera eraman dira, besteak beste:

- "Bergara Loratzen", Balkoi eta Leihoak apaintzeko lehiaketa.
- Lehen Hezkuntzako ikasleak azokara programa ezin izan da egin covidaren eraginez.
- Gabonetan apainketa berezia.
- Azokako postuen aurkezpena eta salmentarako gunea sare sozialetan.

Oxirondo Azoka indarberritzeko asmoarekin 2021ean zehar azokarako postuen kokapean landu da covidaren eraginez neurriak aplikatuz. Helbur nagusi bezala : Azoka irekita eta bezero zein langileekin segurtazuna zaintzea.

Lehen Sektoreko gune hau, pandemiaren ondorioz, indartuta atera dela esan genezake. Dena den, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan 2021ean Gipuzkoako Azoken inguruko proiektu berezi baten lanketa egin ondoren, egoeraren azterketa egin da, bertako eta sasoiko produktuen merkaturatzea bultzatzea, lehen sektorea biziberritze aldera aurrera pausuak eman dira eta 2022an zehar, azokako eskubiko aldean obra egingo da gune ireki bat bertan jartzeko.

3.1.- Eguaztenetako azokak.

Azokako poztuak beraien produktuek salgai jarri dituzten baina Covidaren eraginez ekitaldi bereziak ezin izan dira egin.

3.2.- San Martin Feriaren kokapena. Pandemia dela eta Fraiskozuri kalera bideratu da.

3.3.- “Bergara Loratzen” Balkoi eta Leihoak apaintzeko lehiaketa. Pandemia dela eta ekimen hau bertan behera geratu da. Ekimen honen helburua da, apaintketak ingurugiroari eta herriaren itxurari ekartzen dizkion onurak balioan jartzea eta aldi berean, balkoiak eta leihoak zaintzen eta apaintzen jarraitzea edo horren ohitura berreskuratzea.

3.4.- Ikasleak azokara programa.

Ekimena berreskuratu den arren, LH4 ko ikasleak parte hartu ahal izan dute, besterik ez. Ikasleek Azoka bisitatu eta erosketak bertan egin dute, gela bakoitzari 50€ ematen zaio udal bonotan eta gela bakoitzeko ikasleek diru horrekin egun baterako 4 laguneko etxe baterako erosketak egiten dute. Zer erosiko den aurrez ikastetxean lantzen dute eta ondoren erositakoa, gelan zozketatzen da eta irabazleak etxera eramaten du. Gastua: 500 € dietak baserritarrei.

3.5.- Gabonetan apaintzea berezia.

Azokako postu fijoak Bedelkarreko bazkideak direnez, 2021ean Gabonetako apaintzea berezia ere bertan kokatzea erabaki zen, Azokara bertaratzeko interesa piztu nahian, Udala eta Bedelkarren eskutik. Gastua: 600 €

3.6.-Azokako postuen aurkezpena eta salmentarako gunea sare sozialetan.

Bergarako udaleko webgunean presente izatea Oxirondo azokako postuen aukera eta erosketarako sistema ere.

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



Baliabide interesgarria izanik ez du pentsatu hainako interesa sortu.

3.7.- Oxirondo azokaren berrantolaketarako lanen proiektua

2022 urtean aurrera eramango den egitasmo bat da. Bertan azoka gunearen egokitzapen lanak egingo dira. Proiektuaren lanketa 13.310 € izan da.

OXIRONDO azokaren dinamizazioan gastatua: 14.410 €

4. ENPRESAKIN LANKIDETZA

Zer da

4.1. ENPRESA BERRIENTZAT lokala alokatzeko laguntzak.

Programa honen bidez, lantzen ari den garapen sozio-ekonomikoa bultzatu nahi da, bi asmo uztartuz. Alde batetik, ekintzaile berriei alokairu-laguntza eskaintzea beraien ibilbide-hasierako urratsetan laguntzeko; eta bestetik, herrian hutsik dauden lokalen erabilera berreskuratzeko, herriko alde zaharreko lokalak bereziki.

Asmoa da herriko merkataritza eta industria eremuetako funtzio ekonomikoa bultzatzea, eta horretarako jarduera eta ekimen berriak merkataritza- eta industria-ingurune horietan kokatzen dituzten enpresa berriei alokairu-laguntza bi urtetarako ematen zaie.

2021ean **5 eskaera** izan ziren eta **emandako dirulaguntza 19.293 €**

4.2. ERAGIN laguntzak.

Eragin programaren barruan, herriko merkataritza- eta industria-eremuetako funtzio ekonomikoa mantentzen eta areagotzen laguntzeko helburuarekin 50 langile edo hortik behera dituzten Bergarako enpresentzako dirulaguntzak arautzen da.

Dirulaguntza-programa horren barne, hiru laguntza-mota hauek emango dira:

- **Ekintzailea:** Enpresa berria sortzean egindako inbertsioei aurre egiten laguntzeko. Enpresa berria ulertuko da dela deialdia argitaratu baino gehienez urte bat lehenago eratutakoa.
- **Azterlana:** Azterlan teknologikoak egiten laguntzeko.
- **Erreleboa:** Enpresen (pertsona fisiko zein juridikoen) enpresaondorengotza/erreleboa egiten laguntzeko.

2021ean **eskaera 2** izan zen eta **12.295€**-ko laguntzak eman dira.

4.3 ENPRESARE foroa

BERELAN FOROtik abiatuta, Bergara, Elgeta eta Antzuolako hiru herrietako industria eragileek **ENPRESARE FOROA** martxan jarri zuten Miguel Altuna Institutuarekin batera. **ENPRESARE FOROA** sektore industrialaren berraktibazioa bultzatzeko helburuarekin sortutako lan-taldea da. Bergara eta inguruko enpresen arteko elkarlana bultzatzea, eta horrela udalerriko enpresen jarduera ekonomikoa sustatzea.

Bertako partaideak honako hauek dira: Enpresetako ordezkariak, kontseilariak, Miguel Altuna Institutuko ordezkariak, Debagoieneko Garapen Agentziako eta Bergarako udaleko ordezkariak.

ENPRESARE FOROAK 11 bilera egin ditu 2021ean eta aurrera eraman dituen ekintzen bidez, enpresen arteko elkarlana bultzatu eta proiektu estrategikoak sortu eta landu dira.

Guztira inguruko **22 enpresek** parte hartzen dute ekimenean.

Bestalde, Enpresare Foroa 2021eko uztaillean elkarre eratu zen eta 2021eko irailetik 2022ko irailera bitarteko hitzarmena sinatu zuen Bergarako udalarekin. Horrela,

30.000 € dirulaguntza jaso zuen, ondorengo eginbehar nagusiekin:

- Enpresekin ekimenak bideratzen jarraitu.

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



- Gai desberdinetako jardunaldiak eskaini.
- Arlokako mahaiak lantzen jarraitu.
- Ferietara proiektua landu.
- Negozio eredua berraztertu.
- Enpresa bazkide kopurua gehitu.
- Enpresen partaidetza eta konpromisoa sustatu.
- Komunikazio plana zehaztu eta ezarri.
- Baliabide teknikotan prestakuntza jaso.
- Ordezkaritza-lana: Sare eta Agenteen artean.
- Beste erakunde eta Agenteekin erlazionatu eta lankidetza sustatu: Basque Precision Technology District BPTD, Goierri Valey, Iraurgi Berritzen, Asi-group, Ner... besteak beste.

Guztira, **30.000 €** bideratu dira.

4.4. FASTENING COMPETENCE CENTER – FCC (FEX).

Zer da:

FCC proiektuko partaideek diren 16 enpresek, elkarte bat eratu dute lotura sistemen eta lotutako elementuen sistemen inguruan aritzen diren enpresen arteko lankidetzaproiektuak garatzeko asmo orokorrekarekin.

Beraien helburua da torlojugintzari buruzko erreferentzia-zentro espezializatu bat gauzatzea, torlojuek duten aplikagarritasuna eta horien merkatua lantzeko. Proiektua Bergaran kokatzen da eta Udalak proiektu honetan hasieratik hartu du parte, orain dela bi urtetik hona zuzendaritza-komiteko parte aktiboa izanik. FCC elkarteak honako proposamena egin dio udalari:

-Udala bazkide laguntzailea izatea.

-Udalak proiektua diruz laguntzea.

Udalak proposamena onartu du eta proiektua martxan jartzeko **25.000 €** dirulaguntza eman dio, 2021eko aurrekontuen kontura.

Helburuak:

- Ezagutzaren garapena pizteko, sustatzeko eta indartzeko behar beste ekintza egitea; horrenbestez, balioa sor dadin bai produktuan, bai lotura-sistemei eta -elementuei lotutako zerbitzuetan, eta horrela enpresek balio-kate honen barruan lehiakortasunean aurrera egin dezaten, lankidetzaren eta berrikuntzaren bidez eta bezeroarentzako balio-ekarpenaren bidez.
- Elkarreak teknologiari, negozioari eta merkatuari buruzko batasunen esparrua ikertzeko azterlanak egin edo aginduko ditu, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatuko ditu, proiektu globalei ekiteko beharrezkoak izan daitezkeen enpresa-batasun edo -elkarreak bultzatuko ditu, eta proposatutako helburuak hobeto lortzeko beharrezkoak diren lantaldeak eta batzorde sustatzaileak eratuko ditu.

5. ZTB jardunaldiak. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak.

Zer da

ZTB - Zientzia Teknologia eta Berrikuntzaren dibulgazioa, gizarteratu eta sustatzeko helburuarekin, Bergara, eta inguruko herritarrei orokorrean, eta bereziki enpresa, komertzio eta hezkuntza arloari zuzendutako jardunaldiak dira.

Urtero Zientzia astearen ospakizunarekin ustartzen da, azaroaren lehen astearen inguruan.

Ekimen berritzaileen laborategi-probaleku edo topagune izan nahi duen egitasmoa, eragile parte hartzaile hurbilen lankidetzarekin.

Horretarako helburu eta ekintzen proposamen eta programazioak lantzen dira herritar talde eragile eta erakunde ezberdinen inplikazioarekin.

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



2021eko edizioan ZIENTZIARATZEA lemapean abiatu da eta 2020an proposatu zen erronka nagusiaren lanketarekin jarraitu da: hitzaldiak eta ikastaroak modu telematikoan eskaintzea.

Guztira **9 bilera** izan ziran jardunaldiak martxan jartzeko eta urriaren 19tik azaroaren 21era bitartean ospatu ziren.

Aurtengo egitasmoan, **24 jarduera** desberdin izan ziren, eta **19 erakunde – eragileen** partaidetza, ondorengo multzo hauetan landuz:

- Erakusketak.
- Hitzaldiak.
- Ikastaro - Tailerrak.
- Barnetegi Teknologikoa.
- Escape Room teknologikoa.
- Sare sozialak eta bideo-jokoen lehiaketak.

Edizio honetan hitzaldi telematikoak eta bideoak izan dituzten jarraitzaileak Facebook eta YouTube neurtu dira eta hona hemen datu esanguratsuenak:

Facebook: 34.225 bisita.

- Escape room teknologikoak : 9.039 bisita
- Gaztetxoak MAIn, Miguel Altunako tailer-ikastaroetan: 10.390 bisita.
- Euskara eta Adimen artifiziala. Ahotsen garbazio maratokia: 8.096 bisita.
- Kimikako esperimentuak: 6.700 bisita.

YouTube

- Guztira: 1.068 bisita.

2021eko ZTP ihardunaldiak, era presentzialean (1.727 pertsona) eta telematiko eta sare sozialen bidez (69.518 pertsona), **71.245 pertsonengana** heldu dira.

2021eko jardunaldietan, **38.269 €** gastatu dira. (Eusko Jaurlaritzatik 14.000 €ko diruguntza eman du).

ZTBri buruzko informazioa guztia www.ztbergara.eus helbideak dago.

6.- EGINOLA – Ekintzailetasun Jardunaldiak.

Zer da

Ekintzailetasuna sustatzeko asmoarekin, EGINOLA “Etorkizuna zure eskuetan” lelopean, Miguel Altuna Institutua eta Bergarako Udalak, elkarlanean antolatutako jardunaldien 1.edizioa izan da.

Jardunaldi hauen bidez, autoenpleguaren inguruan sentiberatze lanketa eginez, enpresen eta ekintzaileen arteko harremana sortu, elkar ezagutza sustatu eta negozio ideia berritzaileak partekatu eta lantzen dira.

2021ean, ekainaren 7, 8 eta 9an goizez ospatu dira .

Guztira 19 partaiderekin 4 taldetan banatuta proiektuen lanketarako.

7an: Enpresetako ordezkariak erronkak proposatu zituzten eta ondorengo egunetarako landu beharrekoak adostu ziren.

8an: MAI tik sortutako Enpresa ekintzaile adibide bat eta bere negozio eredua erakutsi zen. Ondoren talde bakoitzak ideien lanketari ekin zion.

9an: Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako Teknikariak dirulaguntza eta baliabideen mapa azaldu zuen eta azkenik, talde bakoitzak landutako proiektuak aurkeztu ziren.

Ondoren sari lehiaketa eta sari banaketa izan zen:

TEKNIKAKo ordezkariak osatu zuten epaimahaia eta proiektuak azaldu ondoren, saria banatu zen. Proiektu irabazleari 1.000 euroko saria eman zitzaion.

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



Jardunaldien antolaketarako 3 bilera egin ziren.

Amaieran partaideek balorazio galdetegia bete zuten eta emaitza oso positiboa jaso zenez, bigarren edizioa antolatzea erabaki zen.

Gastua guztira **8.600 €** izan da

7.- EHUNDUrekin lankidetza – Eraldaketa Sozialaren inguruan Etorkizuna Eraikiz.

Zer da

Pandemiak eragindako egoerak hausnarketa berezia eskatzen zuela baloratu ondoren, gizarte mailan gertatuko diren aldaketetara ahalik eta hobekien egokitzeko Eraldaketa soziala eta ekonomia sozialaren inguruko lanketarako kontratazio bat bideratu zen: Talaio Kooperatiba elkarte.

Hausnarketak horrek zituen helburuak:

I. Helburu orokorra

Bergaran eraldaketa soziala eta ekonomia soziala sustatzeko plana egitea.

II. Helburu zehatzak

- Gizarte erronkei lotutako eraldaketa sozialari zein ekonomia sozialari lotutako erronkak garatu ahal izateko plan zehatza egitea.
- Erreproduktzio sozial eta ekologikorako, prozesu eraldatzaileak garatzeko estrategiak proposatzea.
- Herrian ekonomia soziala eta eraldaketa soziala sustatzeko aukerak aztertzea.
- Gizarte erronkak, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eta ekintza plana kontutan hartuta, ekintza zehatzak eta prozesu bat diseinatzeko oinarriak finkatzea.
- Formazio eta aholkularitzarako proposamenak egitea.

GASTUA: 10.527 €

Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz dirulaguntza deialdian, Bergarako Herri Proiektua eta eraldaketa soziala lantzeko egitasmoa aurkeztu zen

ondorengo erakundeen elkarlanaren bidez:

- Bergarako Udala
- Debagoiena 2030 (Gizabidea Fundazioa).
- Olatukoop sarea.
- Mondragon Unibertsitateko Lanki Ikertegia (Huhezi Koop. Elkartea).

Hauen guztien arteko hitzarmen sinatu zen proiektua garatzeko:

Gipuzkoak dituen etorkizuneko erronkei erantzuna emateko planteatzen diren proiektu berritzaileak, eragile ekonomiko eta sozialek bultzatutakoak.

Tokiko garapena eta ekintzailatza sozial komunitarioa garatzeko oinarritzakoak bihurtu dira eragile mota ezberdinen arteko elkarlana eta lankidetzak.

Dimentsio publiko komunitarioak uztartzeko herri proiektu bat lantzea da proiektu honen erdigunean dagoena eta horretarako herritarrak zein eragileak saretu eta aktibatzeke eraldaketa sozialaren bulegoa martxan jarriko du Bergarako Udalak 2022an.

Proiektu honen bidez, bi prozesuak: herri proiektuaren prozesua eta eraldaketa sozialaren bulegoa, diseinatu eta sistematizatzeko aukera abian jarri da.

Egitasmoak honako ardatz hauek ditu:

- Eragile eta norbanakoendako formazio eta saretze ekintzak.
- Proiektu eta gai ezberdinen bueltako ekintza espezifikoak.
- Hezkuntza aktiboa Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat datozen erronken inguruan.
- Proiektu eta ekintzailatza sozial komunitarioko proiektu berrien identifikazio eta sustapen zein bidelaguntza.
- Aholkularitza eta zerbitzua ingurumen gaitan: energia, baso eta lurrak, elikadura burujabetza...
- Eraldaketa sozialeko bulegoa prestatu herritar eta eragileekin elkarlana sustatzeko tresna gisa.

Proiektuak 2022.urtean jarripena izango du.

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA



2021eko 40.048 € bideratu dira.

EHUNDU Egitasmoa garatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Etorrizuna Eraikiz programaren bitartez beste 30.632 €-ko bideratu da..

Danera EHUNDU egitasmoa bideratutako dirua **81.273 €**

ARLOAREN BALORAZIOA

Azken urteetan orientazio eta laneratze arloari dedikazioa gutxitu egin da garapenaren alde. Gaur egun, Mankomunitateko garapen zerbitzutik eskaintzen da baina oinarritzko maila batean. Egokia litzateke baliabide hau indartzea.


Bestalde, Bergararen garapen sozio-ekonomikorako ekimen asko sortu eta indartu dira herrian arlo publiko eta pribatuaren arteko elkar lankidetzari esker eta horrela jarraitzeko apustu egin behar du Udalak.

Udalak ekimena eduki du eta herriko eragileei esker burutzea lortu da, baina beti ere Udalaren babesean. Ondorioz, dinamika mantendu behar bada, Udalak herriaren garapen sozio-ekonomikoaren alde egiteko baliabide egokiak jarri behar ditu eta honek zerbitzua indartzea eskatzen du.

Gaur eguneko zerbitzuarekin lortutakoa mantentzea da helburua, baina aurrera begira proiektu berriak bultzatu nahi badira zerbitzuaren birplanteamendu bat egin behar da eta egokitu lortu nahi diren helburuetara.

Epe motzerako lehenetsunetan ekintzailetasun arloarekin erlazionatutako eskaintza bere osotasunean herritarren eskura jartzeko baliabideak garatzea da.

FAMILIAK



FAMILIAK




Espediente kopurua: 66 (% 3,77)


Generoa: Espedienteen % 43,07a emakumezkoak eta % 56,92a gizonezkoa.

Gastua: 79.032,75 €, % 3,20a.

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedieteen banaketa



Iturria: Bergarako Udala


FAMILIAK



FAMILIAK



Familia arloko gastuaren bilakaera



Iturria: Bergarako Udala

Arrisku edo Babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoak

Zer da

Arrisku-egoeraren definizioa: adingabekoaren zaintza duten pertsonak dagozkien erantzukizunak hartzen ez dituztenean edo hartzerik ez dituztenean, eta egoera kaltegarria da adingabekoaren garapenerako.

Babesik gabeko egoeraren definizioa: adingabeak zaintzeko legeek ezarritako babesbetebeharrak betetzen ez dituztenean edo ezinezkoa zaienean edo desegoki betetzen dituztenean eta adingabeek behar duten laguntza moral edo materialik ez dutenean.

Halako egoeretan, gertakarien larritasunak aholkatzen du adingabea familiatik banatzea, eta erakunde publikoak hartuko du beregain adingabearen tutoretza eta aldi batez etengo da gurasoen agintea edo ahala.

Arrisku arin eta ertainen egoerak udalaren eskumena dira. Arrisku handiko eta babesik gabeko egoerak Foru Aldundiaren eskumena.

Familia-nukleoan egindako balorazio-prozesu baten ondoren, bertako adingabeen artean arrisku arin edo ertaineko egoerak detektatzen direnean, pertsona edo familianukleoei ematen zaien laguntza-programa. Laguntza hau terapeutikoa edo/eta hezitzailea izan daiteke.

Borondatezko esku-hartze testuinguru batean, udalak baliabideak eskaini behar dizkie gurasoei eta adingabeei, adingabearen garapen egokirako baldintzak berrezartzeko.

Programa honen bidez honako helburuak landu nahi dira:

- Babesgabetasun arrisku egoeran egon daitezkeen adingabeen detekzioa.
- Babesgabetasun arrisku egoeran egon daitezkeen adingabeen egoeraren balorazioa.
- Babesgabetasun arrisku egoeran dauden adingabeko kasuetan esku hartzeak bideratzea (psikologo, familia hezitzaile nahiz kale hezitzaile esku hartzeekin).
- Babesgabetasun arrisku egoera larrian dauden adingabe kasuak Foru Aldundira bideratzea.

FAMILIAK




FAMILIAK



- Babesgabetasun arrisku egoeran egon daitezkeen edota arrisku egoera arinean aurkitzen diren adingabeko kasuen prebentzio eta jarraipena.

Ondorengo taulan, 2016-2021 urtetan adingabekoekin Bergarako Udaletxetik egindako esku-hartzeen laburpena jasotzen da.



Balorazioak

Zer da

Haurren edo nerabearen garapenerako kaltegarritzat jotzen diren egoeren balorazioa. Arrisku-egoera agertuko da, gizartearen, familiaren edo adingabearen beraren gorabeheren ondorioz, adingabearen garapena eta ongizatea mugatuta edo kaltetuta gertatzen badira, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez badute erantzukizuna hartzen, edo ezin badute osorik hartu, haurren edo nerabearen garapen egokia bermatu ahal izateko.

2021 urtean zehar guztira **58** (19 emakume eta 39 gizon) adingabekoren babesgabetasun arrisku egoeraren balorazio burutu dira.

2021ean adingabekoko babesgabetasun arrisku egoeren **44 balorazio berri** hasi dira. (18 emakume, 26 gizon) **Balorazio hauek 35 familiatan egin dira.**

2020 urtean, covid egoera berezia zela eta jeitsiera ikusi zen, gehienbat detekzio sarea (ikastetxeak, pediatrak, osasun mental zentroa, aisialdi guneak...) detekziorako oso mugatuak egon zirelako. 2021 urtean ikusi da 2019ko kopuruetara bueltatu garela, balorazio kasu berrien kasuak ia bikoiztuz.

Covid-aren ondorioak izan daitezkeen babesgabezia arrisku egoera konkretu batzuk eman direla aipatu daitezke: alde batetik, absentismo kasu gehiago eman dira – badirudi adingabeko eta familia batzuei gehiago kostatu zaiela ikastetxe errutinara bueltatzea- eta beste aldetik, Osasun mentaletik bideratutako kasuak ere jasotzen ari gara – pandemia egoeraren ondorioak ikusten hasi gara adingabeetan, batez ere beraien osasun mental egoeran- ; egoera horrek, Osasun Mental Zentroan egoki atenditzeko duten zailtasunekin batera, etxean kudeatzeko zailak diren egoerak ematen dira. Hurrengo urtetan joango gara egoera honen bilakaera ikusten eta horren araberako irakurketa osatuago eta hobetzeko planteamenduak eraikitzen.


FAMILIAK



FAMILIAK



Balorazioak: bilakaera



Iturria: Bergarako Udala

2021an egindako Balorazioen xehetasuna hauek izan dira.

2021an burututako balorazioak guztira	58
2021an detektatuak	44
Arrisku arin ala ertaina baloratu eta Udaleko Esku hartzea martxan jarri	7
Arrisku larria baloratu Foru Aldundira bideratuak	4

Esku-hartzeak

Zer da

Familia-nukleoan egindako ikerketa-balorazio prozesu baten ondoren, bertako adingabeengan arrisku arin edo ertaineko egoerak detektatzen direnean, pertsona edo familia-nukleoei ematen zaien laguntza-programa. Laguntza terapeutikoa eta/edo hezkuntza laguntza izaten da.

Borondatezko esku-hartze testuinguru batean, Udalak baliabideak eskaini behar dizkie gurasoei eta adingabeei, adingabearen garapen egokirako baldintzak berrezartzeko.

Arrisku-egoera arin eta ertainetan eskuduntza udalarena da eta egoera larriretan Gipuzkoako Foru Aldundiarena.

2021. urtean burututako esku-hartzeak ondorengo taulan zehazten dira:

NOIZTIK esku hatzea	KASUAK/ FAMILIAK	ADINGABEKOAK GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
2021 ean, berriak	5	7	2	5
Aurretik	8	11	1	10
Guztira	13	19	4	15

Esku hartze berri guztiak (bat izan ezik) 2021eko urtarrila eta martxo artean jarri ziren martxan (bestea azaroan). Esku hartze kopuru eta martxan jarritako garaia, zerikusia du Udaletik Zerbitzu Psikohezitzaile soziala leihaketara atera eta esleipenarekin.

Ekainean esleitu eta hasi zen LORRATZ Elkarte zerbitzuarekin eta aurretik martxan zeuden esku hartzeetan figura aldatetak, itxierak... egokitzapenak egin behar izan ziren kasuz-kasu.

FAMILIAK



FAMILIAK



Kale hezitzaileen Zerbitzua

Zer da

Kale Hezitzaileek bazterkeria arriskuan egon daitezkeen nerabe eta gazteekin egiten dute lan. Astelehenetik Ostiralera.

12 urte inguruko nerabeekin hasten dira harreman hezitzailea eraikitzen eta orokorrean 18 urterekin eteten da haiekin lan harremana.

Gizarte bazterketa egoeran egon daitezkeen nerabeen kasuan eta harreman jarraia daukaten haiekin Banakako Esku hartze Hezitzaileak planteatzen dituzte (BPH) eta BPH ezberdinez osatutako nerabeak elkartu eta taldeka etortzeko gaitasun eta konpromezua dutenean Taldeko Esku Hartze Hezitzailea (TPH).

Banakako Proiektu Hezitzaileak (B.P.H..) 2021. urtean:

B.P.H. GUZTIRA	18
Neskak	7
Mutilak	11

Adina	
11-14 urte bitartean	7
15-18 urte bitartean	11

Arrisku faktoreak / zailtasunak	
Kale hezitzaileaz gain, beste profesionalekin (familia hezitzaileak, psikologoak...) lanean dauden gazteak	9
Programatik kanpo lagun talderik ez duten gazteak, edo berdinetatik baztertuta daudenak	9
Aisialdian ekintza sozio kulturaletan parte hartzen ez duten gazteak	14
Ikastetxean ikasturteren bat errepikatu duten gazteak	11
Kontsumo ez egokiak dituzten gazteak	3
Famili arazoak dituzten gazteak	9
Foru Aldundiko esku hartzean dauden gazteak	2

Taldeko Esku Hartze Hezitzaileak (TPH) 2021. urtean:

T.P.H. GUZTIRA	5
Neska-taldeak	2
Mutil-taldeak	2
Talde Mistoak	1

Talde bakoitzarekin espazio eta egun zehatzak dituzte. Herriko 3 ikastetxeetako ikasleak parte hartzen dute programan.

Talde motak	
Talde Naturalak	2
Programak sortutako taldeak	3

FAMILIAK



FAMILIAK



Arrisku faktoreak / zailtasunak

Osasunerako arriskutsuak diren ohiturak dituzten taldeak	1
Programatik kanpo lagun talderik ez duten partaideez osatutako taldeak	3
Harreman ezegonkorrak dituzten taldeak	3
Familia arazo larriak dituzten edo izan dituzten partaideak dauden taldeak	3
Foru Aldundiko esku hartzean	1

Azken 2 ikasturteetan **Gaztelekuan** dauden hezitzaileekin elkarrekiko lan dinamika bat sortzeko aukera izan da. Hezitzaile hauek Zehar elkartetik egiten duten lana eta aspaldian Kale Heziketatik helburu izan den hainbat puntu martxan jarri ahal izan dira, hala nola: Kale heziketa programako gaztetxoak errekurtso normalizatueta barneratzeko aukera, zailtasunak izan ditzaketen gaztetxoen detekzioa...

Zerbitzuaren kostua guztira **79.351,14€**-takoa izan da.

Esku-hartze juridikoa

Zer da

Adingabeko eta familia arloarekin erlazionatutako prozesu judizialean gizarte zerbitzuen parte-hartzea.

Epaitegitik eskatuta **4 adingabekoren egoeraren 3** parte hartu da eta txostenak aurkeztu behar izan dira.

Jarraipenean

Zer da / zein kasutan egidan da jarraipena?

Esku hartze espezifikoa (familiarra, psikologikoa, soziala...) behar ez, baina jarraipen bat behar dutela baloratu diren kasuak.

Esku hartzea bukatu den kasuetan.

Arrisku egoera larria izan gabe familiak esku hartzea ukatzen duten kasuak.

2021. urtean egoera honetan zeuden **32** adingabekoren jarraipena egin da (14 neska eta 18 mutil).

Babesgabetasun arrisku egoera larrian dauden Adingabekoak. Foru Aldundiaren esku hartzea.

Zer da

Babesgabetasun arrisku larri egoeran dauden adingabekoen egoera gainditzen laguntzea helburu duen programa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen duena familia esparruan.

Kasu gehienetan Udaletik egoera larri bezala baloratu eta Foru Aldundira bideratutako kasuak dira.

Nahiz eta Foru Aldundiaren eskuduntza eta esku hartzea izan, Bergarako herritarrak izaten jarraitzen dute eta ondorioz kasu hauen inguruko koordinazioa dago Foru Aldundi eta Udalaren artean.

2021ean guztira Bergarako **4** adingabeko berri (1 emakume, 3 gizon) babesgabetasun arrisku larria jakinarazi da Foru Aldundian. 3 kasu/familia.

2021 urtean Foru Aldundia guztira **2** adingabekorekin (1 emakume, 1 gizon), 2 familiekin, esku hartzea burutzen aritu da Bergaran.

FAMILIAK



FAMILIAK



Adingabekoak Babesgabedia egoeran. Foru Aldundiaren tutelapean.

Zer da.

Adingabekoa babesgabetasun egoera batetan aurkitzen denean, babeste neurri bezala, Foru Aldundiak adingabekoaren tutoretza beregain hartzen du eta aldi baterako edota behin betiko familiarengandik banandu.

Adingabeko hauek zentro edota harrera familietan artatzen dira, normalean Bergaratik kanpo eta kasuaren arabera, baina normalean denbora batetara Bergararekin eta ondorioz Bergarako Gizarte Zerbitzuekin harremana bukatzen da.

Dena dela kasu askotan babes neurria egoera kritiko eta traumatikoa izaten da familian eta ondorioz batez ere Gizarte Zerbitzu eta Ikastetxeen elkarlana eskatzen dute.

2021ean adingabekoen babesgabetasun egoera kasu **BAKARRA** eman da, mutila bera.

Adingabekoak kargura dituzten familientzako diru-laguntzak

Zer da

Babesgabetasun arrisku egoeran dauden edota egon daitezkeen adingabekoen familiei zuzenduriko diru laguntzak dira. Laguntza hauek adingabekoen marjinazioari aurrea hartzea eta babesgabetasun arrisku egoerei ekonomikoki aurre egitea dute helburu. Batzuetan, adingabekoaren babesgabetasun arrisku egoera detektatuta, familia esku hartzea onartzen ez duten kasuetan familiaren egoera ezagutzeko eta familiarekin harremana izaten jarraitzeko ere erabiltzen dira.

Laguntza hauen bidez, adingabekoaren arlo akademiko (errefotzu akademikoak), aisialdi (eskolako irteerak, udalekuak...) zein oinarritzko beharrak (jantokia, arropa, mediku gastuak,...) ordaintzen dira.

2021 urtean ez da diru laguntzarik bideratu.

Zaintzagatiko dituzten familientzako dirulaguntzak

Zer da

Adingabeak izatezko zaintzan (gauda de hecho) dituzten familientzako diru-laguntzak. Eskaera hauek Udalak tramitatzen ditu, baina Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzak dira, berau izanik ebazpena ematen duena eta erantzulea.

Ez da eskaera berririk egin baina iaztik jasotzen zen diru laguntza kasu bati jarraipena eta baldintzak aldatuta diru laguntza amaiera jakinarazi da.

Banaketa egoeran dauden gurasoentzako erantzunkidetasun programa

Zer da

Krisi familiar batean egonda (banaketa edota dibortzio egoerak, familia eredu berriak, berrosatutako familiak...) beren seme-alaben inguruan orientazioa eta laguntza behar duten gurasoei ematen zaien arreta psikologikoa eta juridikoa. Helburua: gurasoak orientatzea, erantzukidetasunean gaitzea. Eskualde mailan jarritako zerbitzua da, Aretxabaletan kokatua.

2021 urtean, Bergarako **herritar bakarra** artatu da, laguntza psikologikotik.

Zerbitzuaren kostua guztira **1.652,70 €**-takoa izan da.

Eskualde mailan zerbitzua martxan jarri zela urte batzuk pasa dira eta egoera aldatu da, besteak beste beharretan aldaketak eman dira eta herri batzuk adingabekoen babeserako zerbitzua esleituta dituzte (Bergara kasu). Guzti horren ondorioz artatutako kasu kopuruak jeitsiera izan du. Adingabekoen babeserako eskualde mailako espazioan gaia hausnartzeko dago.

FAMILIAK



FAMILIAK



Gainbegiratze saioak

Zer da

Adingabekoen arloan lanean ari diren eskualdeko Gizarte Zerbitzuetako teknikariekosatutako lan taldea da, blokeatutako kasuak edota adingabekoen gaiarekin harreman dutako gaiak lantzeko.

2021eko egoera bereziagatik, eskualdeko beste herrietako gizarte zerbitzuekin harremana izan den arren, espazio hau ez da bildu.

Eskola arrakasta proiektua

Zer da

Gurutze Gorrikoek aurkeztu eta proposatuta Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuekin batera 2019ko urtarrilean Eskola Arrakasta izeneko programa martxan jarri zen.

Proiektuaren helburua, haurren eskola arrakastan eragina duten faktoreen inguruan lan egitea da, eskola nahiz garapen pertsonala hobetzen lagundu ahal izateko zerbitzu eta baliabideak eskainiz; horrela, etxean eskolako lanetarako jarraipen, laguntzarik ez, motibazio eta etxeko lanak egiteko ohituretan eragiteko errefortzuak planteatzen dira.

Berez ez da ohiko errefortzu akademiko bat planteatzen, hau da, akademikoki atzerapen/zailtasun soil bat izan dezaketen haur/gazteentzako, baizik eta etxean zailtasunak dituzten haur/gazteei begirakoa; behar/helburuak ezberdinak izan daitezke: estruktura bat ematera begira, taldean egotea, asignatura jakin batzutan errefortzua, agenda erabiltzen laguntzea, liburuak ekarri (antolaketa...)...

2021 urtean izan den covid egoera berezia dela eta, Gurutze Gorriak errefortzu klaseak online ematea erabaki zuen. Horrela iazko urteko haurren familiekin zuzenean egin zuten kontaktua eta 2021eko otsailetik ekainera bitartean **7 hurrek** parte hartu dute 3 neska eta 4 mutil. 3 ikastetxetakoak (San Martin Agirre Herri Eskola, Aranzadi ikastola eta Mariaren Lagundia Ikastola).

Eskola material banaketa proiektua

Zer da

Gurutze Gorriak eskualde mailan aukeztutako Eskola Materiala Banaketa kanpainan parte hartu du Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Bergarako **16 adingabekok** jaso dute eskola material lote bana (LH eta DBHkoikasleak).

Egoera ekonomiko zailean aurkitzen diren familiei eskolako materialak suposatzen dien gastuan laguntzeaz gain, beste familia batzurekin – adingabekoen babesean esku hartzean aurkitzen direnekin- Gizarte Zerbitzuetara bestelako harremanera gerturatzeko aukera egokia izan dela baloratzen da.

Jostailu hezitzaile banaketa proiektua

Zer da

Gurutze Gorriak Udalarekin elkarlanean egiten duen kanpaina da. Kanpaina honen helburua Gabonetan kalteberatasun-egoeran dauden familietako haurrei (2009tik aurrera jaiotakoak -12 urte-) jostailu berriak banatzea da.

Aurten **58 haurrei** banatu zaie jostailua bana.

Arloaren balorazioa

Familia arloa eta adin txikikoen babesa azken urteetan hazten ari den arlo bat da. Espediente kopuru zein esku-artean dauzkagun kasuek horrela erakusten dute.

2021 urtean Bergarako Udalak 185/2015 DEKRETUAn jasotakoari, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa,

jarraituz, zerbitzu psikosozial eta psikohezitzaileen zerbitzua martxan jarri du eta ondorioz LORRATZ elkarteren bidez zerbitzua martxan jarri da.

FAMILIAK




FAMILIAK



Zerbitzu honek formakuntza ezberdineko talde profesionala osatzen du eta familia eta babesgabetasun arloan talde gisa lan egitea ekarri du. Honela lanerako metodologia, sistematizazioa, dokumentazioa eta prozedura amankomunak sortzen ari gara eta honek lan osoago eta borobilagoa egitea dakar.

Zentzu honetan, lan ildo honekin, beste eragile eta profesional batzuekin elkarlanaren aritzea dakar eta kasu berrien detekzioa eta ezagutza eragina du.

Zentzu honetan aurrera begira zerbitzua osatu eta garatzeko erronka daukagu.




**GIZARTE
LANKIDETZA**

GIZARTE LANKIDETZA


Espediente kopurua: 26 (% 1,48)

Gastua: 103.033,95€ (% 4,17).

Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



Espedienteen banaketa




Iturria: Bergarako Udala

GIZARTE LANKIDETZA



GIZARTE LANKIDETZA

Gizarte lankidetzako arloaren gastu bilakaera



Gizarte zerbitzu arloko elkarteei diru laguntzak

Zer da

Diru-laguntzak emateko deialdia da. Bergarako Udalerrian gizarte zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendua dago. Helburua da elkarteak sustatzea eta herritarren arteko elkartasuna, boluntariora eta herritarrak antolatutako ekintzetan parte hartzera bultzatzea.

Guztira **12** elkarte aurkeztu zuten eskaria eta horietatik **10** elkarte jaso dute laguntza; **2** elkarte ez dituzte betetzen **2021-03-04an** GAOn argitaratutako baldintza pleguan jasotako betebeharreko baldintzak betetzen.

10 elkarte jaso dituzte diru laguntza

Banatutako diru laguntza: 34.483 €

GIZARTE LANKIDETZA



GIZARTE LANKIDETZA

Laguntza jaso duten elkarteak honako hauek izan dira:

ELKARTEA	PROIEKTUA	ONARTUTAKO DIRU-LAGUNTZA €-TAN
ADAHIGI	Hiperaktibitatea eta atentzio defizita dutenei laguntzeko programa	9.661,00
ODOL EMAILEAK	Odol estrakzioak	1.390,00
AGIFES	Buru nahasmena duten senitartekoei laguntza eta sentsibilizazio ekintzak	3.000,00
ATZEGI	Adimen desgaitasuna dute pertsonen arteko harremanak lantzeko programa	1.985,10
SOS ARRAZAKERIA	Kultura eta jatorrian oinarrituta diskriminazio eta segregazioa jasten dutenei aholkularitza juridikoa.	3.643,00
ASPACE	Bergaran Buruko Paralisia dutenen familientzako laguntza	6.000,00
SAREA FUNDAZIOA	Bazterkeria egoeran daudenei laguntzeko programa	3.000,00
GURUTZE GORRIAK	Eskola arrakasta programa	900,00
GAUTENA	Autismoan oinarritutako elbarritasuna dutenentzako laguntza programak	1.700,00
BANCO DE ALIMENTOS	Bazterketa soziala izateko arriskua dutenen artean janari banaketa	3.204,00
GUZTIRA		34.483,00

Egin diren ekintzak honako hauek izan dira: jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaroak, mahai informatzaileak, orri informatzaileak, boluntario lanak Udalak antolatutako ekintzetan.

Gobernuz kanpoko elkarteei laguntzak

Zer da

Gobernuz Kanpoko Erakundeen hainbat programa aurrera eramateko diru laguntzak dira. Programa hauen helburuak honako hauek izan behar dira:

- Garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzea. - LANKIDETZA PROIEKTUAK
- Goian aipatutako herrialdeetako errealitatearekiko interesa sortzea, Bergaran egingo dituzten ekintzen bidez. BERGARAN SENTSIBILIZAZIO EDOTA LANKIDETZA EKINTZETAK

Aurtengo deialdian **8** proiektu aurkeztu dira, **7** garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzeko helburua izan dute.

1 Bergaran egingo dituzten ekintzekin sentsibilizazioa eta lankidetza ekintzei lotutakoa.


Proiektu guztiak onartu dira.

Guztira 8 proiektu finantziatu dira: 33.524,37 €

GIZARTE LANKIDETZA



GIZARTE LANKIDETZA



Diru laguntzak honako erakunde eta herrialdetara bideratu dira:

Garapenerako proiektuak

ELKARTEA	PROIEKTUEN ARLOAK	DIRU LAGUNTZA €-tan
Asociación de cooperación al desarrollo "Elkartasuna Txiapasekin"	Emakumeak bultzatutako osasun sareak indartu. Txiapas-Mexiko	3.547,60
OSCAR ROMERO	Emakumeen ahalduntze ekonomikoa. (El Salvador)	5.828,20
AMSOGRA	Emakumeen ahalduntze ekonomikoa. (El Salvador)	5.574,80
YAAKAR Aratzabaleko elkartea	Osasun proiektua-Senegalen	2.820,00
MUNDU SOLIDARIO HELBURUA (Nicaragua)	Desgaitasuna duten gazteekin inklusioa. Nikaraguan	5.574,80
Ndank-Ndank (Senegal)	Hezkuntza-prestakuntza	3.800,00
TAU FUNDAZIOA	Hezkuntza-prestakuntza	4.948,00
GUZTIRA		32.093,40

Sentsibilizazio eta Lankidetzako proiektuak

ELKARTEA	PROIEKTUEN ARLOAK	DIRU LAGUNTZA €-tan
Bergarako Senegaleko Lagunen Elkartea-NDANK-NDANK	Modaren bitartez kulturartekotasuna eta elkartasuna jorratzea, Senegalen ikuspegi positiboagoa transmitituz	1.430,97

Elikagaien Bankuko janari banaketa

Zer da

Bergarako Udaleko, Caritas elkarteko, Elikagaien Bankuko eta herritar boluntario batzuekin lankidetzan hilero janari banaketa egiten da Udalak Martoko kalean utzitako lokalean.

Janariak jasotzeko baldintzak dira: Bergaran erroldatuta egotea, DBL eta DBE-rik ez jasotzea, salbuespena egiten da familia unitateak 4 pertsona edo gehiagok osa-tzen badute, eta kasuak kasuko aztertzen diren egoera bereziak.

Udalak hilero banaketa egin ahal izateko, garraiorako baliabideak eskura jartzen ditu.

Onuradunek Caritas elkartean izena ematen dute eta bertan jasotako orria aurkeztu behar izaten dute janari otarra jaso ahal izateko, hilero azken asteazkenean.

2021ean Bergaran urtean zehar, batanaz beste, hilero **140** elikagai otarra banatu dira.

lazkoarekin alderatuta **18** otar gehiago hilero banatu dira aurten. Kontuan izan behar dugu iazko datuak ezohizkoa izan zirela COVIDak sortutako egoeraren ondorioz; aurten oraindik COVIDa egon arren badirudi aurreko datuetara gerturatzeko ari dela.

Hileroko elikagaien otar banaketa kopurua honako hau izan da.

LAGUNTZA	KOPURUA
Urtarrila	173
Otsaila	171
Martxoa	160
Apirila	157
Maiatza	131
Ekaina	125
Uztaila	120
Abuztua	-
Iraila	118
Urria	125
Azaroa	128
Abendua	130
DANERA	1.538


GIZARTE LANKIDETZA



GIZARTE LANKIDETZA

Banatutako elikagai poltsa kopurua

2021 urtean Bergarako Udalak KARITAS elkartearekin lankidetza hitzarmena bat sinatu du elikagaien banaketak sortutako gastua finantziatzeko helburuarekin. Hitzarmen honen bidez, KARITAS elkarteak **6.419,98 €** jaso ditu.





**Bergarako
Udala**



BERGARA
izan, bizi, ekin